



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko ekainaren 16a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko enpresa publikoei buruzko txostena: "Langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak", 2004ko ekitaldia, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Lekualdatze lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko (50. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua (51. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak (56. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko enpresa publikoei buruzko txostena: “Langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak”, 2004ko ekitaldia, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko enpresa publikoei buruz egindako txostena: "Langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak", 2004ko ekitaldia, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko enpresa publikoei buruzko txostena: "Langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak", 2004ko ekitaldia, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (2. or.).
 - I.1. Enpresa publikoei buruzko informazio orokorra (3. or.).
 - I.2. Zuzenbide eta kontabilitate araubidea (4. or.).
- II.** Fiskalizazioaren helburua (6. or.).
- III.** Fiskalizazioaren norainokoa eta mugak (6. or.).
- IV.** Iritzia (7. or.).
 - IV.1. Langileen hautaketa (7. or.).
 - IV.2. Kontratazioak (7. or.).
 - IV.3. Nafarroako Gobernuaren eta bere erakunde autonomoen enkarguak (8. or.).
 - IV.4. Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak (8. or.).

V. Ondorio orokorrak eta gomendioak (8. or.).

VI. Enpresa publikoetan eginiko fiskalizazioari buruzko iruzkinak eta oharrak (10. or.).

VI.1 Langileen hautaketa (10. or.).

VI.2. Kontratazioak (12. or.).

VI.3. Nafarroako Gobernuaren eta bere erakunde autonomoen enkarguak (19. or.).

VI.4 Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak (24. or.).

VII. Gainerako enpresa publikoei buruzko iruzkinak (26. or.).

I. eranskina. Langileria-gastuen lagina (30. or.).

II. eranskina. Kontratuak (31. or.).

III. eranskina .Enkarguak (33. or.).

IV. eranskina. Transferentziak (35. or.).

V. eranskina. Enpresa publikoen ratioak eta emaitzak (37. or.).

VI. eranskina. 2004an eginiko 12.020 euro baino gehiagoko enkarguak eta haietatik eratorritako kontratuak honakoak dira (38. or.).

Oharrak, Nafarroako Gobernuko ekonomia eta ogasun kontseilariak aurkeztutakoak (48. or.).

Erantzuna, Nafarroako Gobernuko ekonomia eta ogasun kontseilariak aurkeztutako oharrei emandakoa (49. or.).

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere araubidea ezartzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2004ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioa egin du Foru Komunitateko administrazioeko enpresa publikoetan (aurrerantzean "enpresa publiko" deituko diegu), honako alderdi hauen gainekoa:

langileen aukeraketa, obra-kontratuak, laguntza tekniko eta hornidurak, enkarguak eta Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzien ondoriozko dirusarrerak.

Auditoria hau Comptos Ganberak 2005 eta 2006rako onetsitako fiskalizazio programetan sartu zen. Bi auditoria-teknikarik eta auditore batek bi ekitaldi horietan zehar Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin egin zuten lana da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu enpresa publikoetako langileei.

I.1. ENPRESA PUBLIKOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Enpresa publikoak dira kapitalean Nafarroako Foru Komunitatearen edo haren erakunde publikoen partaidetzak gehiengoa dueneko sozietateak, zuzenean edo Foru Komunitatearen titulartasun publikokoak diren beste sozietate batzuen bitartez.

2004an 28 enpresa publiko zeuden. Foru Komunitateko administrazioak 18 enpresaren sozietate-kapitalean parte hartzen du zuzenean eta osotasunez.

2004an, honakoak dira Foru Komunitatearen titulartasun publikoko sozietateak:

IZENA	Eratze urtea	Kapitala (milakoetan)	Parte-hartzea	Sozietate-helburua:
Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, SA	1999	242	100 Foru Kom. adm.	Nafarroako plan teknologikoa bultzatu eta betetzea
Baluarte-Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra SA	1999	83.117	100 Foru Kom. adm.	Baluarte eraiki eta ekipatzea eta bertako instalazioak ustiatzea
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SA	1991	721	95,33 Nafinco	Enpresetarako zerbitzuak, jarduera berrien abiarazpen eta arrakastarako
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SA	2001	61	100 Foru Kom. adm.	Nork bere kabuz hizkuntzak ikasteko eta hizkuntzetako irakasleen prestakuntzarako jarduerak
Ciudad del transporte de Pamplona SA	1991	8.605	95,64 Foru Kom. adm.	Iruñerriko garraio gunearen instalazioekin zerikusia duten jarduketak
Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones SA	1982	1.859	100 Foru Kom. adm.	Naturaren arloko hobekuntza eta mantentze jarduketak
Gestión de Deudas SA	1982	418	100 Foru Kom. adm.	Dirusarrera publikoen dirubilketa arloko kudeaketa
Instituto Calidad Agroalimentaria Navarra SA	2000	60	100 Foru Kom. adm.	Nekazaritza-elikagaien industriarekin, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearekin eta nekazaritza-industriaren alorrekin zerikusia duten jarduerak
Instituto Técnico de Gestión Agrícola SA	1979	60	100 Foru Kom. adm.	Nekazaritza sektorearekin zerikusia daukaten jarduketak
Instituto Técnico Ganadero SA	1996	541	100 Foru Kom. adm.	Abeltzaintza sektorearekin zerikusia daukaten jarduketak
Natural Climate Systems SA	2001	2.000	66 Enpresa publikoak	Higiezinak sustatu, eraiki eta zaharberritzea energia-efizientziari dagozkion irizpideen arabera
Navarra Financiación y Control SA	1986	51.686	99,99 Foru Kom. adm.	Merkataritza-konpainietan parte hartzea, partaidetzak hirugarrenei eskualdatzea, merkataritza-konpainiei mailegu eta abalak ematea
Navarra Gestión para la Administración SA	2002	13.310	100 Foru Kom. adm.	Informazio eta komunikazio sistemak antolatzeko lanak. Zerbitzu administratibo eta teknikoak kudeatzeari buruzko datuak, informazioaren gizartea garatzea.
Navarra Infraestructuras Locales SA	1989	901	100 Foru Kom. adm.	Obrak eta zerbitzuak hornidura, saneamendu, ur eta hiri-hondakin solidoen alorrean
Navarra Medio Ambiente Industrial SA	1997	150	100 Foru Kom. adm.	Industria-hondakinekin zerikusia duten jarduerak
Navarra Servicios SA	1981	3.304	91,96 Foru adm., 8,04 Enpresa publikoak	Zuzenbide, kontabilitate, zerga, lan eta informatikako alorretako aholkularitza, nekazaritza-elikagaiekin zerikusia duten zerbitzuak eta bestelako zerbitzu operatiboak.

IZENA	Eratze urtea	Kapitala (milakoetan)	Parte-hartzea	Sozietate-helburua:
Navarra Suelo Industrial SA	1997	10.746	57,14 Foru Kom. adm. 4,76 SODENA, 14,29 Est. org. publikoak 23,81 Enpresa pribatuak	Hirigintza-planeamenduaren kudeaketa eta exekuzioa, planeamendu instrum. prestatzea, hirigintza-kudeaketa eta urbanizatzeko-jarduketa
Navarra Suelo Residencial SA	1999	2.404	100 Foru Kom. adm.	Etxebizitzetarako lurzorua kudeatzea eta lurzoru eraikigarrien nahiz ondare publikoaren kudeaketan laguntzea.
Navarra Verificaciones Legales SA	1989	120	65,05 Enpresa publikoak, 34,95 CETENA Fundazioa	Legezko metrologiaren alorreko egiaztapenak
Obras Publicas y Telecomunicaciones Navarra SA	1986	300	100 Foru Kom. adm.	Telekomunikazio zerbitzuak eta bide azpiegituren nahiz azpiegite hidraulikoen alorretakoak; Iruñerriko garraio-zentroetarako instalazioak
Planetario De Pamplona SA	1990	60	100 Foru Kom. adm.	Planetarioaren eta bertan gauzatutako jardueren kudeaketa
Potasas De Subiza SA	1985	3.606	100 NAFINCO	Meategi-jardueraren alorreko ingurumen-jarduerak
Riegos De Navarra SA	1984	601	100 Foru Kom. adm.	Ureztaketarekin zerikusia duten jarduerak
Sal Domestica SA	1977	6.010	76 POSUSA, 24 Enpresa pribatuak	Sodio-gatzak eta haien eratorriak eskuratu eta ekoiztea eta haiek merkaturatzea
Sociedad De Desarrollo De Navarra SA	1984	18.2234	65,42 Foru Kom. adm., 14,58 Nafinco, 20 TME 2001 Corpcan	Azterlan ekonomikoak eta Nafarroan eginiko inbertsioak sustatzea eta Nafarroako sozietateen enpresa-egituren hobekuntzan lankidetzan aritzea
Start Up Capital Navarra SA	2000	3.006	55,03 hiru enpresa publiko	Enpresak sustatzea aldi baterako partaidetzaren eta horrekin zerikusia duten eragiketen bitartez
Trabajos Catastrales SA	1982	4.171	99,99 NGA, 0,01 Nasersa	Inbentarioak, aberastasun-erregistroak eta oro har datu-baseak kudeatzea eta informatikako proiektuak garatu eta exekutzea
Viviendas De Navarra SA	1988	18.000	100 Foru Kom. adm.	Etxebizitzak sustatzea eta zaharberritzea

2005. urtean zehar honako enpresa publiko hauek eratu dira:

- Riegos del Canal de Navarra SA: Bere helburu soziala da Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegiturak eraikitzea eta, kasua bada, ustiatzea, zuzenean edo hirugarren batzuei eskaturik. Sozietatearen kapitala 60.200 eurokoa da.

- Sociedad de Promoción de inversiones e infraestructuras de Navarra S.A. sozietateak duen helburu nagusia da Foru Komunitateko ekoizpen-azpiegituretan eginiko inbertsioak sustatzea. Sozietate hori eratzean, hasierako kapitala 300.000 eurokoa du.

2006an eratu zen honako enpresa publiko hau:

- Producción informática de Navarra SL, 600.000 euroko kapitalarekin. Bere helburu soziala da ekipo eta aplikazio informatikoak ekoiztu eta kudeatzea, erabiltzaileei zerbitzuak ematea eta

informatikaren sektorean parte hartzea nahiz sektore horretako enprekin lankidetzan aritzea.

Foru Komunitatearen titulartasun publikoko sozietate guztiek, Producción informática de Navarra izenekoak izan ezik, erantzukizun mugatuko sozietatea baita, sozietate anonimo forma hartu dute. Sozietate anonimoetan, gutxieneko kapitala 60.101 eurokoa da, eta erantzukizun mugatukoetan, 3.005ekoa.

1.2. ZUZENBIDE ETA KONTABILITATE ARAUBIDEA

Hemen hizpide dugun zuzenbide eta kontabilitate araubidea da 2004. urtean indarrean zegoena eta enpresa publikoei aplikatzekoa zena.

Sozietate publikoei antolamendu juridiko pribatua aplikatzen zaie, ezertan galarazi gabe aurrekontuei, kontabilitateari, ondareari, finantzen kontrolari eta kontratuei buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak.

Haien kontabilitateak bete behar ditu Merkataritza Kodeko xedapenak, Kontabilitate Plan Orokorra eta Sozietate anonimoei buruzko Legearen testu bategina.

Gainera, kontabilitate publikoko araubidearen menpekoak dira. Horren ondorioz:

- Sozietate publikoen kontuak (kontu horiek osatzen dituztenak dira oroitidazkia, egoera-balantzea eta galera eta irabazien kontua) Nafarroako kontu orokorren osagai dira, eta sozietate publikoen jarduketa-programek, inbertsioek, finantzaketak eta finantzen egoera-orriek Nafarroako aurrekontu orokorrak ere osatzen dituzte.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Kontu-hartzaitzaren bitartez gauzatzen duen kontrol finantzarioari lotuak daude.

- Halaber, Comptos Ganberak eginiko kanp kontrolari ere lotuak daude.

Kontratazio alorrean, administrazio batek sozietate publiko bateko kapitalean, zuzenean zein zeharka, gehieneko partaidetza baldin badu, sozietate hori publikitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei egokitu beharko zaie, salbu eta egin beharreko eragiketaren izaera bateraezina denean printzipio horiekin, Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeko 1.4 artikulua ezartzen duenez.

Gainera, Europar Batasuneko araudia betetzeko, interes orokorrari dagozkion beharrianak asetzeko asmoz eraturiko sozietate publikoek, baldin eta industria edo merkataritza izaerarik ez badute, nortasun juridikoa badute eta haien jardueraren zatirik handiena administrazio publiko batek finantzatua denean, edo administrazio publiko horren kontrolpean dagoenean haien kudeaketa, edo haien administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoa osatzen duten kideen erdiak baino gehiago entitate publikoek izendatuak direnean, bete beharko dituzte kontratuei buruzko legeak enpresen gaitasunari, publikitateari, lizitazio prozedurei eta esleipen moduei buruz ezartzen dituen aginduak, 5.923.624 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuen kasuan, eta, zerbitzu publikoen hornidura, laguntza eta kudeaketa kontratuen kasuan, haien zenbatekoa 236.945 euro edo gehiagokoa denean. Kopuru horiek, bi kasuetan BEZa sartu gabe daukatenak, dira 2004rako ezarritakoak.

Azken baldintza hori Europar Batasuneko kontratazio-araudia aplikatzearen ondorioz sorturikoa da. Araudi hori ez du espresuki jaso Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeak, zeina, gai berari buruzko Estatuko legearen kasuan ez bezala,

puntu horretan ez baitzen aldatu eta Europar Batasuneko zuzenbideari egokitu. Egokitzapen hori joan den uztailaren 6an gauzatu zen, Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Lege berriak indarra hartu zuenean. Foru Lege horrek Foru Komunitatearen esparruan txertatzen du Europar Batasuneko zuzenbideak enpresa publikoen kontratazioarentzat ezartzen duen araubidea.

Foru Komunitateko administrazioak bere sozietate publikoei eginiko enkarguen araubide juridikoa 150/2003 Foru Dekretuan jasota dago. Enkarguaren figuraren bidez, administrazioak bere ente instrumentalei agintzen die haien eskumenekoak diren jarduera material, tekniko edo zerbitzukoak gauzatzea.

Kapitalaren gehiengoa Foru Komunitateko administrazioaren partaidetza batek osatua daukaten sozietate publikoak hartuak izanen dira, enkargu gisa jasotzen dituzten obrak, lanak, laguntza teknikoak eta zerbitzu-prestazioak gauzatzearen ondorioetarako, Foru Komunitateko baliabide instrumentala bereki eta zerbitzu teknikotzat, Nafarroako Gobernuak izaera hori aitortzen dienean.

Administrazioaren eta sozietate hauen arteko harremanak Kontratuei buruzko Foru Legearen esparrutik kanpokoak dira, eta izaera instrumentala dute; ez kontratu-izaera.

Sozietate publikoek zilegi izanen dute administrazioak enkargu bidez eginarazten dizkien jarduketetarako enpresaburu partikularren lankidetzak eskatzea. Enpresaburu horiek hautatzeko, publikitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak aplikatuko dira, salbu eta egin beharreko eragiketaren izaera bateraezina denean printzipio horien aplikazioarekin. Enkarguen exekuziorako lankidetzak horren zenbatekoa ezin izanen da 5.923.624 euro baino handiagoa izan obretarako, ez eta 236.945 euro baino handiagoa ere, hornidura eta laguntzen kasuan.

Gainera, enkarguz eginarazten zaizkien obra, lan, laguntza tekniko eta zerbitzu-prestazioak gauzateari dagokionez enpresa horiek Foru Komunitateko bitarteko bereki eta zerbitzu teknikotzat hartuak direnez, kanpoko laguntzaileekiko kontratazioan ezin izanen da gainditu aurrekontuaren ehuneko 50, justifikaturiko salbuespenetan izan ezik.

Langileria arloan, lan zuzenbidea aplikagarria zaie, baina, botere publikoaren baliabide diren aldetik, langileak hautatzean errespetatu beharko dituzten konstituzio-printzipioak dira nahierakeriaren debekua, berdintasuna, meritua eta gaitasuna. Printzipio horiek, eraginkor izateko, beharrezko dute bestelako batzuk aplikatzea, hala nola publi-

zitatea, konkurrentzia eta objektibotasuna, horien bitartez bermatzeko langileen hautaketa-prozesu objektiboa eta arrazoitua gauzatzen dela.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUA

Fiskalizazio lan honen helburua da:

Langile-hautaketari, kontratuei, enkarguei eta Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziei 2004an aplikatzekoa zitzaizen araudia enpresa publikoek bete zutela egiaztatzea; zehazki, honako printzipio eta legezko betebeharrak:

Langileria:

- Behar bezalako prozeduren aplikazioa, langile-hautaketan nahierakeriaren debekuari, berdintasunari, merituari eta gaitasunari buruzko konstituzio-printzipioak betetzen direla bermatzeko.

Obra, laguntza tekniko eta hornidura kontratuak:

- Kontratuei buruzko foru legea betetzen ote den, administrazio-kontratazioan publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak aplikatzeari dagokionez.

- Europako legedia betetzen ote den. Legedi horrek behartzen du 5.923.624 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak eta 236.945 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten hornidura, laguntza tekniko eta zerbitzu publikoen kudeaketako kontratuak (BEZa kanpo, bi kasuetan) egokitze-ara enpresen gaitasunaz, publizitateaz, lizitazio prozedurez eta esleipen-moduez kontratuei buruzko legeak ezarritako arauetara. Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari jarraituz, 2004. urtean aplikatzekoak dira otsailaren 13ko HAC/429/2004 Aginduan ezarritako zenbatekoak.

Enkarguak:

- Nafarroako Gobernuak enpresa publikoei egini-ko enkarguak enkarguei buruzko 150/2003 Foru Dekretuan araututako prozedurari jarraituz izapi-

detzen ote diren, enpresaren sozietate-helburuaren arabera ote diren, enkarguan emandako lanak bete izanaren justifikazioa, eta lan horiek beste enpresa batzuekin lankidetzan egiteari dagokionez ezarritako mugak errespetatu ote diren.

Nafarroako Gobernuaren transferentzien bidezko dirusarrerak:

- Enpresa publikoei Nafarroako Gobernuaren transferentziak jaso ahal izateko eskatzen zaizkien baldintzak bete ote diren eta bete izanaren justifikazioa, eta transferentzia horiek aplikatu ote diren haiek eman zirenean ezarri zitzaizen helbururako.

III. FISKALIZAZIOAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak inkesta bat bidali zien enpresa publiko guztiei, eta hartan 2004ko ekitaldiko datuak eskatzen zitzaizkien, honako hauei buruzkoak: langileria, 12.020 euro baino gehiagoko enkarguak eta kontratazioak, eta ekitaldi horretan Nafarroako Gobernutik jasotako kapital transferentziak nahiz transferentzia arruntak.

Inkestan emandako datuetatik abiatuta, berrikusi beharreko laginak, ez-estatistikoak, hautatu dira, langileriarri, kontratuei, enkarguei eta Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziei buruzkoak, 2004an guztira zeuden 28 enpresa publikoetatik 17ri dagozkienak.

Zenbatekoa izan da laginak hautatzeko irizpide nagusia, eta horrekin batera, inkestan zehaztutako esleipen-prozedura, kontratazioak obrenak, laguntzenak, zerbitzuenak eta hornidurenak zirenean. Langile-kontratazioen kasuan, langile finkoen kontratazioaren aldeko hautua gailendu egin zaio aldi baterako langileenari.

Enpresa publiko bakoitzean hautatu eta berrikusitako laginen guztizko zenbatekoa, zeinaren xehetasunak txosten honen eranskinetan jaso baitira, honako hau da:

	Kopurua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainera 2004. urtea
Langileria: Altak	53		14
Kontratuak	51	38.743.712	38
Enkarguak	25	23.832.170	42
Jasotako transferentziak	30	12.912.938	73

Enpresa publikoen 2004ko ekitaldiko auditoria finantzarioko txostenak aztertu ditugu, ekitaldi horretan zehar langileriari, kontratuei, enkarguei eta transferentzien bidezko dirusarrerei dagokiez izandako eduki ekonomikoko gertakariak eza-gutze aldera.

Halaber, aintzat hartu ditugu Foru Komunitateko administrazioaren kontu-hartzailletza orokorrak enpresa publiko batzuetan kontratazio-prozesuei buruz eginiko berariazko auditoria-txostenak.

Lan honen helburua betetzeko aurreikusitako proben gauzatzea eta auditoria prozeduren aplikazioa murriztu duen muga gisa, zenbait enpresa publikotan ezin izan dugu egiaztatu zein izan den enkarguan emandako lanaren benetako kostua, eta horrek ezinezko egin du kostu hori aurreikusitako kostuarekin alderatzea.

Espainiako Estatuko kanpo kontroleko organo publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoria printzipio eta arauak aplikatuz egin dugu azterketa-lana.

Txostenean adierazitako iritzia eta ondorioak oinarriturik daude gauzatutako auditoria prozeduren eta proben bitartez lorturiko frogetan, eta kontuan hartu dugu, enpresa publiko bakoitzerako, kontratazio, enkargu eta berrikusitako transferentzien bidezko dirusarreraren zenbatekoa eta aplikatzeakoak diren legezko printzipioen betetze-maila, bai eta aurkituriko ez-betetzen justifikazioa ere.

Berrikusi ez diren enpresa publikoei buruzko ondorioak oinarriturik daude inkestetako informaziotik lorturiko frogetan.

Auditoria egin zaien enpresa publikoak honako hauek dira:

- Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra S.A.
- Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A.
- Ciudad del transporte de Pamplona S.A.
- Gestión Ambiental Viveros y repoblaciones, S.A.
- Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.
- Instituto Técnico de Gestión Agrícola, S.A.
- Instituto Técnico de Gestión Ganadero, S.A.
- Navarra de Gestión para la Administración, S.A.
- Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.
- Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.

- Navarra de Servicios, S.A.
- Navarra de Suelo Industrial, S.A.
- Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.
- Riegos de Navarra, S.A.
- Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.
- Trabajos Catastrales, S.A.
- Viviendas de Navarra, S.A.

Txosten honen interpretazio egokia egiteko, beharrezkoa da, txosteneko iritzi, ondorio eta gomendio orokorrak azaltzen dituzten atalak irakurri eta aplikatzean, enpresa publiko zehatz bakoitzaren banaka aztertzea, kontuan harturik fiskalizazioak haietako bakoitzean izan dituen emaitzak.

IV. IRITZIA

IV.1. LANGILEEN HAUTAKETA

Ganbera honen iritiz, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SA, Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas SA, Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones SA, ITG Agrícola SA, Navarra de infraestructuras Locales SA eta Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA enpresa publikoek langileak hautatzeko aplikatu dituzten prozeduren bidez bermatu egiten da nahierakeriaren debeku, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak modu onargarrian betetzen direla.

Gainerako enpresa publikoetan, 2004an langile-altak egon eta berrikusi zireneko hamalauetatik guztira zortzitan, ez dugu modu onargarrian frogatzerik izan ea printzipio horien aplikazioa bermatzen duten prozedurak jarraitu dituzten langilehautaketan.

IV.2. KONTRATAZIOAK

Comptos Ganberaren iritiz, eta azterturiko kontratuei dagokienez, enpresa publikoek oro har legedi indarduna bete dute, txosten honen II.2 eranskinean zehazturiko salbuespenen kasuan izan ezik, 4.930.672ko zenbatekoa egiten duten 12 kontraturi dagozkienak, B eta C letrekin sailkatuak; horiei ez zaizkie aplikatu obren, laguntza teknikoaren eta horniduren kontrataziorako publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak, edo ez da justifikatu aipaturiko printzipioen aplikaziorik eza.

Gainera, aztertutako kontratuetatik Europar Batasuneko araudiaren mugak gainditzen dituztenetako bakar batean ere –guztira bederatzita dira,

20.519.932eko zenbatekoa egiten dutenak– ez dira bete haien publizitateari buruz kontratuei buruzko foru legeak jasotzen dituen arauak.

IV.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ENKARGUAK

Comptos Ganberaren iritziz, 2004ko ekitaldian Nafarroako Gobernuak eta bere erakunde autonomoek enpresa publikoei enkarguan emandakoak eta Comptos Ganberak aztertutakoak diren lanei dagokienez, legedi indarduna ez da modu egokian bete 17 enkarguren kasuan, zeinek 20.613.711ko zenbatekoa egiten baitute eta A-tik F-rako letrekin sailkatuak baitaude txosten honetako III.2 eranskinan.

IV.4. NAFARROAKO GOBERNUTIK JASOTAKO TRANSFERENTZIAK

Comptos Ganberaren iritziz, 2004an zehar Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoek jasotako transferentziei –Comptos Ganberak aztertutakoei– dagokienez, oro har, finantzaturiko gastuak egiazki eginak eta egokiro justifikatuak daude.

V. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian agertzen dira langileriaren, obra-kontratuen, laguntza teknikoaren eta enpresa publikoek jasotako horniduren, enkarguen eta transferentzien gastuen gaineko fiskalizazioan ateratako ondorio orokorrak, bai eta Comptos Ganberak gastu horiei buruz eginiko gomendioak ere:

Langileen hautaketa

2004an langile-kontratazioak egin zituzten hamalau enpresa publikoetatik seitan egiaztatu ahal izan denez, erabili dituzten prozedurek bermatu egiten dute nahierakeriaren debekuari, berdintasunari, merituari eta gaitasunari buruzko konstituzio-printzipioak modu egokian betetzen direla langile-hautaketan.

Gainerako enpresa publikoetan egiaztatu ahal izan denez, langile-hautaketarako erabiltzen dituzten prozeduretan ez dute proba objektiborik egiten, baizik eta, besterik gabe, lanpostu bakoitzerako aurkezten diren izangaiak elkarrizketatzen dituzte; gerta daiteke, halaber, eginiko kontratazioa ez egotea beti justifikatuta eta objektiboki arrazoitua, eta kasu batzuetan ez da inon jasotzen zer-nolako prozedura erabili duen enpresa publikoak.

Hona gure gomendioak:

- *Arau-esparru bat eratzea, enpresa publikoetan langileak hautatzeko prozedura objektiboa arautuko duena. Prozedura hori oinarriturik egonen da nahierakeriaren debekuari, berdintasunari, merituari eta gaitasunari buruzko konstituzio-printzipioak betetzen direla bermatuko duten irizpideetan.*

- *Enpresa publikoetan barne prozedurak arautu eta aplikatzea, langileak aurreko printzipioei jarraituz hautatze aldera.*

- *Langileak hautatzean zer prozedurari jarraitu zaion adierazten duen azalpena idatziz uztea, eta dokumentuz frogatua.*

Enpresa publikoek sinaturiko obra, laguntza teknikorako eta hornidura kontratuak:

Kontratuen lizitazioari dagokionez, eta, zehazki, zenbateko handia daukaten obretarako kontratuetan, enpresa publikoek oro har aplikatu egin dituzte publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak.

Hala ere, egiaztatu ahal izan denez (horri buruzko xehetasunak ematen dira, enpresa publiko bakoitzerako, txosten honetako VI.2 atalean, aztertutako kontratu guztien berri ematen baita bertan), zenbait urraketa izan dira, hala nola:

- Kontratua zuzenean esleitzea, publizitaterik gabe eta eskaintzarik eskatu gabe, eta esleipen-prozedura horretarako inolako justifikazio-arrazoirik adierazi gabe.

- Kontratuak publizitaterik gabe lizitatzea, konkurrentzia mugatuz enpresak eskaturiko eskaintzeta, kasu batzuetan inolako justifikaziorik eman gabe jarraitutako prozedurari buruz, eta beste kasu batzuetan, egin den kontratazioari begira enpresa publikoak berak ezarritako irizpidearen aurka jokatuz.

- Europako legediaren urraketa. Legedi horrek behartzen du 5.923.624 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak eta 236.945 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten zerbitzu publikoen hornidura, laguntza eta kudeaketako kontratuak egokitzea enpresen gaitasunaz, publizitateaz, lizitazio prozedurez eta esleipen-moduez kontratuei buruzko legeak ezarritako arauetara.

Enpresa publiko batzuek obra-kontratazioak, laguntza tekniko eta hornidurak arautzeko prozedurak onetsi dituzte, eta kontratuaren zenbatekoaren arabera ezarri dituzte haien lizitazioari aplikatzekoak diren irizpideak.

Halaber, zenbait enpresa publikok kontratuen arauketarako klausula orriak onesten dituzte. Oro har, orri horiek lehiaketa ezartzen dute esleipen-modu gisa, baina orri horietan ez dira jasotzen lizitatzailerek aurkezturiko eskaintzak balioesteko erabiltzen diren esleipen-irizpideak, eta irizpide horiek aipatzen dituen dokumenturik ere ez da egoten. Beste kasu batzuetan, egiaztatu ahal izan dugu kontratuei buruzko orrietan ezarritako klausula batzuk ez direla betetzen; horrela, adibidez, gertatu izan da, nagusiki, kontratua esleipen-hartzailearekin ez formalizatzea, edo kontratua exekutatzeko epeak ez betetzea.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak 2006ko uztailaren 6an indarra hartu zuenez gero, haren bigarren liburuan ezarritako xedapenak bete behar dira; hain zuzen, enpresa publikoek sinaturiko obra, hornidura eta laguntza kontratuak, bai eta haiek sinaturiko herri lanen eta zerbitzuen kontzesioetarako kontratuak ere, prestatu eta esleitzeari buruzkoak. Xedapen horiek bete behar dira, halaber, enpresa publikoek eta partaidetza publikoa duten merkataritza-sozietate pribatuek sinaturiko kontratuetan.*

- *Enpresa publikoak onetsitako klausula-orrietan ezarritako baldintzak betetzea. Klausula-orrietan ezarritako esleipen- irizpideak balioetsi eta haztatzea eta kontratua idatziz formalizatzea esleipen-hartzailearekin.*

Enkarguak

Nafarroako Gobernuak enkarguen figura erabiltzen du bere entitate instrumentalei zenbait lan eta zerbitzu eginarazteko.

Aztertutako kasu askotan, Nafarroako Gobernuak hainbat departamentuk enkarguak egiten dituzte gai hori arautzen duen ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak bete gabe; horrela, sozietate publikoei eginarazten dizkiete beren giza baliabideak eta baliabide materialak argi eta garbi gainditzen dituzten lanak, bai eta, batzuetan, sozietate publikoaren helburu soziala bera gainditzen dutenak ere; azken batean, figura honek izan behar dituen mugak eta betebeharrak gainditzen dituztenak.

Horren ondorioz, azterturiko enkargu askotan, enpresa publikoek, beren aldetik, kanpoko laguntzaileekin kontratatatu behar izaten dute enkarguan jasotako lanaren zati bat, bai eta, kasu batzuetan, lan osoa ere. Hori horrela, 150/2003 Foru Dekretuak kanpo-kontrataziorako ezartzen dituen mugak gainditu egiten dira eta, batzuetan, urratu egiten dira sozietate publikoen kontratazioan errespetatu

beharrekoak diren publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak.

Era horretan, Foru Komunitateko administrazioak bere entitate instrumentalei maiz ematen dizkie zenbait lanetarako enkarguak, eta entitate horiek, beraien bitartekoekin ezin dituztenez lan horiek egin, hirugarren batzuekin kontratatuzera behartuta egon ohi dira. Horrek agerian uzten du prestazio horiek administrazioak kontratatatu behar izan zituela.

Kasu hauetan, enpresa publikoek bitarteko huts gisa jarduten dute administrazioaren eta kontratisten artean, eta bitartekotza-eginkizun horren truke kudeaketa-gastuak fakturazten dituzte; horrek ondorio gisa ekartzen duena da hirugarrenek eginiko lana garestiagoa dela, alderatzen bada administrazioak esleitua izanez gero izan zukeen kostuarekin. Enpresa publikoek enkarguan jasotako lanak kudeatu eta egitearen ondoriozko gastuengatik Nafarroako Gobernuari fakturazten diote ehuneko 3tik ehuneko 20ra bitartean, azterturiko enkarguetako batzuetan egiaztatu ahal izan dugunez.

Bestalde, ikusi ahal izan dugu akatsak daudela Nafarroako Gobernuak enkargua dela-eta emandako baimenean eta enkarguan emandako lanei buruz enpresa publikoek emandako justifikazioan. Ildo horretan, ez da frogatuta geratu Nafarroako Gobernuak oro har egiaztatu egiten dituenik enkarguan emandako lanen fakturazioa eta kostua.

Halaber egiaztatu ahal izan da ezen, kasuren batean, ez dela behar bezala kontrolatu enpresa publikoko langileek enkargua betetzen emandako ordu-kopurua, enkarguan emandako lanengatik administrazioari fakturatzeko oinarri gisa hura erabiltzeari dagokionez.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuei buruzko foru lege berriak ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretua, enkarguak arautzen dituena, indargabetu duenez, gomendatzen dugu Nafarroako Gobernuak ahalik eta azkarren onets dezala foru dekretu berri bat, figura hau behar bezala erabiltzeko betekizunak eta mugak ezarriko dituena.*

- *Nafarroako Gobernuak eta bere menpeko organismoek enpresa publikoei enkarguan emandako lanek izan behar dute enpresa horien helburu sozialaren esparruko gaiei buruzkoak soil-soilik, eta enpresa publikoak egin ahal dituen lanak behar dute izan; ez ia osoki kanpoko enpresei enkargatu behar izatekoak.*

- *Egindako lan enkargatuak behar bezala justifikatzea. Ildo horretatik, entitate enkargu-egileak egiaztatu behar ditu enpresa publikoak enkargua dela-eta fakturaturiko gastuak; halaber, enkargua behar bezala bete duela eta aurretiaz onetsitako jarduketekin bat datorrela.*

- *Arautu behar da enpresa publikoek lan enkargatua egiteagatik Nafarroako Gobernuari kobratzen dioten ehunekoa –bai ehunekoaren zenbatekoa, bai ehuneko hori zein oinarri aplikatu behar zaion ere–.*

- *Enpresa publikoek beraiei enkargaturiko lanak egiteko xedez kanpoko laguntzaileei egiten dioten esleipenak bete behar ditu Kontratu publikoiei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Legeko xedapenak.*

Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak

Enpresa publikoek Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziei dagokienez, honakoa egiaztatu ahal izan da:

Dirulaguntzak eman dira enpresa publikoaren jarduera arruntaren esparrukoak diren eta egiazki eginikoak diren zenbait gastutarako, nahiz eta gastu horiek ez zeuden sartuta dirulaguntzak jaso ahal zituzten jardueren artean, txosten honetako VI.4 atalean zehazten denez.

Ez da inon jasota utzi Nafarroako Gobernuko departamentuek zuzenean egiaztatzen dituzten emaitza finantzatzeko eta funtzionamendu-gastutarako transferentzia arruntak jasotzen dituzten enpresa publikoek egiazki eginiko gastuak.

Nafarroako Gobernuak enpresa publikoentzako dirulaguntza gisa kontabilizatzen du enkargatutako lanengatik haiei ordaindutako kontraprestazioa.

Nafarroako Gobernuak enpresa publikoiei eginitako transferentziei buruzko gomendioak honako haiek dira:

- *Diruz laguntzeko moduko gastuek izan behar dute diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, eta Nafarroako Gobernuak egiaztatatu behar du benetan bete egin direla transferentziak emateko betekizunak eta baldintzak, bai eta transferentzia horiekin finantzatutako gastuak justifikatu egin direla ere.*

- *Administrazioaren eta enpresa publikoen arteko harreman finantzarioen gardentasuna bermatzea, administraziotik enpresetara eginiko transferentzien justifikazioaz eta egiazko erabilera informatuz.*

- *Nafarroako Gobernuak ondasun arruntan erosketarako eta zerbitzu-ematerako gastu gisa edo inbertsio-gastu gisa kontabiliza ditzala enkargaturiko eta enpresa publikoek egindako lanak, haiei emandako dirulaguntza gisa erregistratu beharrean.*

Bestalde, eta enpresa publikoetan eginiko fiskalizazioaren emaitza gisa, zenbait ondorio atera dira, honako gomendio orokor haiek egitera bul-tzatzen dutenak:

- *Enpresa-sektore publikoaren gaur egungo antolamenduari buruzko hausnarketa egitea, kontuan harturik zenbait enpresak egiten duten jarduera, Nafarroako Gobernuak enkargatutako obra, laguntza tekniko eta zerbitzuetarako kontratuen esleipenean enpresa horiek bitarteko huts gisa betetzen duten eginkizuna, bai eta haiek Nafarroako Gobernuaren transferentziekin daukaten mendeotasuna ere. Ildo horretan, aztertu beharko litzateke ea zerbitzuak emateko modurik efiziente, eraginkor eta ekonomikoaren arabera ote diharduten, betiere administrazioak, zerbitzu publikoak kudeatzeko modua aukeratze aldera, bere burua antolatzeko daukan askatasunaren esparruan, eta gogoan izanik antolaketa-ekonomiaren printzipioa.*

- *Foru Komunitateko administrazioaren eta bere enpresa publikoen arteko harremanen oinarritzko alderdiak arautzea.*

- *Enpresa publikoen arteko harremanak arautzea, besteak beste, haien artean hitzarmenak, emandako zerbitzuen kudeaketa eta eragiketa finantzarioak ezartzeari begira.*

Azpiarratzekoa da ezen, fiskalizazio-lana eginen ari ginen bitartean, egiaztatu ahal izan dugula zenbait enpresa publikok aplikatzekoak diren konstituzio-printzipioen arabera langile-hautaketako prozedurak onetsi dituztela eta horiek aplikatzen ari direla, bai eta kontratuei buruzko legedi berriari egokitzeko eta legedi hori betetzeko xedez ere, hori guztia fiskalizazio-txosten honetan adierazitako gomendioen ildotik.

VI. ENPRESA PUBLIKOETAN EGINIKO FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRUZKINAK ETA OHARRAK

VI.1 LANGILEEN HAUTAKETA

Enpresa publikoek 2004an langileak hautatzeko jarraitu dituzten prozedurei buruz ateratako ondorioak hauexek dira:

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra S.A.

2004an azterturiko hiru kontratazioetatik, zuzendaritzako laguntzaile postu finkorako langile-hautaketa egin zen proba objektibo eta balioetsien bitartez, eta beste bi lanpostuak, goi-mailako tituludun batentzako lanpostu finkoa eta aldi baterako teknikari juniorren postua, CEINeko langileek bete zituzten.

CEINek langile-hautaketarako onetsitako prozeduran ezartzen da, enpresako langileen sustapena posible ez denerako, proba teknikoak egin beharko zaizkiela, dela enpresako datu-basean sartutako langileei, baldin eta bete beharreko postuaren betekizunak betetzen badituzte, dela aurkezten diren izangaiei, eta, horrez gain, kontratatu beharreko postuaren publizitatea egin beharko dela.

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A.

Egiaztatu ahal izan dugunez, azterturiko laginean zeuden hiru pertsonak, lehen mailako bi ofizial administrari eta irakasle laguntzaile bat, hautatu dira publizitatea eta proba objektiboak erabiliz. Hiru kontratazio horiek aldi baterakoak dira, eta kasu guztietan jasota daude eginiko proben balio-espena eta puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren hautaketa arrazoitua.

CNAIk langile-hautaketarako ezarritako prozedurak, zeina errespetatua izan baita azterturiko kasuetan, xedatzen du lan-eskaintza ezagutarazi behar dela eta izangaiarekin proba praktikoak eta elkarrizketak egin behar direla.

Gestión Ambiental Viveros y repoblaciones, S.A.

Azterturiko lanpostuetarako –egiturazko bi lanpostu, aldi baterakoak– 2004an kontraturiko langileak hautatzeko, basogintzako ingeniari bat eta administrari bat, enpresa horrek publizitatea egin du eta prozedura objektibo bati jarraitu dio, egiaztatu ahal izan dugunez.

Egoera jakinetarako (kanpainak, lan bereziak eta bajak) aldi baterako langileak hautatzeko, abiapuntu gisa hartzen dira enpresak dituen curriculumak, eta, postu zehatz batzuetarako, aintzat hartzen da lan-tokiarekiko hurbiltasuna; horrelaxe jokatu da, adibidez, 2004an amatasun-baja bati aurre egiteko eta sei hilabeterako peoi-postu baterako kontratazioan.

Halaber, 2004an zehar, administrazio kontseiluak erabaki zuen 10 pertsonari kontratazio muga-

gabea egitea, kontuan harturik antzintasun, eraginkortasun eta balioaniztasun irizpideak.

Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.

Egiaztatu ahal izan dugunez, ICANek 2004an kontraturiko langileak, bai finkoak bai aldi baterakoak, hautatzeko, ez zen proba objektiborik egin. Guztira bost kontratazio berrikusi ditugu, aldi baterako goi-mailako bi tituludunenak, maila ertaineko bi tituludunenak (horietako bat, kontratu finkoduna) eta bigarren mailako ofizial baten kontratu mugagabea.

Enpresa publiko horrek 2005ean langile-hautaketarako onetsi duen prozedurak ez du agintzen inolako hautaketa-proba objektiborik egitea, baizik eta, soil-soilik, elkarrizketa pertsonal bat.

Instituto Técnico de Gestión Agrícola, S.A.

ITG Agrícolak 2004an eginiko bi kontratazio mugagabe, Comptos Ganberak berrikusirikoak, honako postu hauetarako izan dira: erdi mailako tituludun bat eta lanbide heziketa II-nekazaritzako tituludun bat. Gradu ertaineko tituluduna hautatzeko, idatzizko proba bat eta elkarrizketa bat egin ziren, eta lanbide heziketa II-nekazaritzako tituluduna hautatzeko, berriz, elkarrizketa bat egin zitzaion enplegu-bulegoak bidalitako eskatzaile-zerrenda batean sartuta zeuden izangaiei.

Berrikusatiko aldi baterako kontratazioak dira goi-mailako tituludunaren eta peoiaren postuetarako. Goi-mailako tituluduna hautatu zen zenbait izangairi elkarrizketa eginez, eta haien artetik aukeratu zen ITG Agrícolak deialdi publiko eta proba objektiboen bidez iaz egin zuen hautaketa-prozesu batean parte hartu zutenetako bat.

Peoi-posturako aldi baterako kontratazioari dagokionez, ez da jasota utzi zer prozedura jarraitu zuen ITG Agrícolak hura hautatzeko.

ITG Agrícolako administrazio-kontseiluak 2001ean dokumentu bat onetsi zuen, zeinean ezartzen baita, besteak beste, lanbide heziketa II edo goragoko mailetarako langile finkoak hautatzeko prozedura, idatzizko proba tekniko baten eta elkarrizketa pertsonalen bidezkoa, bai eta prentsan publizitatea egitea ere.

Instituto Técnico de Gestión Ganadero, S.A.

Ez dago frogatuta proba objektiborik egin zenik Comptos Ganberak berrikusatiko aldi baterako hiru kontratazioetarako. Kontratazio horiek postu hauetarako izan ziren: administrari laguntzailea, arduraduna eta goi-mailako tituluduna. Azken bi postu horiei dagokienez, enpresak erabilitako hautaketa-prozedura zein izan den ez da agertzen.

Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.

Berrikusi dugun hautaketa izan da aldi baterako kontraturiko erdi mailako tituludunaren lanposturakoa. Tituludun hori hautatu zen kanpoko enpresa batek eginiko aurretiazko hautaketa bat gainditu zuten izangaieen artean, eta horretarako kontuan hartu zen enpresa hautatzaile horrek izangai horiei buruz eginiko ebaluazio orokorra.

Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.

Ez da inon ageri 2004an proba objektiborik egin zenik berrikusitako aldi baterako lau postuetarako langileak hautatzeko. Postu horiek dira goimailako tituludun batena, erdi mailako bi tituludunenak eta laguntzaile batena.

2004. urtean finko bihurtu dira enpresan aldi baterako kontratua izanik ziharduten bost langile. Finko bihurtze hori oinarrituta dago, nagusiki, jardueraren finkapenean eta hiru urtez gorako antzinatean, kudeatzailearen proposamenean adierazten denez.

Navarra de Servicios, S.A.

Ez da inon ageri 2004an proba objektiborik egin zenik aldi baterako kontratatze goimailako tituludun bat, maila ertaineko tituludun bat eta laborategiko laguntzaile bat. Beraz, kontraturiko pertsonen hautaketa justifikatu gabe dago.

Navarra de Suelo Industrial, S.A.

Ez da inon ageri 2004an abokatu kontratatu finko baten posturako aurkeztu ziren izangaiek probarik egin zutenik, ez eta haien balioespena zein irizpideren arabera egin zen ere.

Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.

Goi-mailako eta maila ertaineko teknikari espezialisten aldi baterako postuetarako langile-hautaketa egin zuen horretarako kontraturiko kanpoko enpresa batek. Kontraturiko pertsonen hautaketa oinarritu zen izangaiei buruz enpresa hautatzaileak egin zuen ebaluazio orokorrean.

Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.

Ez da proba objektiborik egin 2004ko ekitaldiko bi kontratazioetarako. Kontratazio horiek izan ziren praktiketako goimailako tituludun posturako eta garbiketa-langile posturako.

Trabajos Catastrales, S.A.

Aldi baterako langileen sei kontratazio berrikusi ditugu, honako postu hauetarakoak: goimailako tituludun bat, maila ertaineko hiru tituludun, lanbide heziketako tituludun bat eta laguntzaile bat.

Kontratazio mugagabe bat ere berrikusi dugu, arkitekto posturakoa.

Laguntzailea hautatzeko oinarri gisa hartu ziren izangaiek proba tekniko batean lorturiko emaitzak eta balioespena.

Gainerako kontratazioen kasuan, ezin izan dugu egiaztatu zenbait pertsonaren artean hautaketa egiteko prozedurarik egin denik, ez baita inon agertzen azterturiko postu bakoitzera aurkezturiko beste izangairik zegoenik eta, beraz, postu bakoitzetarako hautaturiko langileen balioespen eta justifikazio objektiborik ez dagoelako.

Viviendas de Navarra, S.A.

Berrikusitako langile-hautaketa, 2004. urtekoa, aldi baterako administrari laguntzaile postu baterakoa da, eta ez zen egin proba objektiboak erabiliz.

VI.2. KONTRATAZIOAK

2004an esleiturik eta/edo indarrean zeuden kontratu guztien artean berrikusitako obra, laguntza eta hornidura kontratuak, enpresa publikoetakoak, eta Comptos Ganbera honek eginiko lanetik ateratako ondorioak honako hauek dira:

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra S.A.

- IKT-Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektorean kontratu-tipologia itzultzea. Guztizko zenbatekoa: 16.240 euro.

Zuzenean CEINek aukeratu zuen zein enpresari esleituko zitzaion kontratua. Ez zitzaion eskaintzarik eskatu inolako beste enpresari, CEINek 6.000 euro baino gehiagoko erosketetarako ezarritako irizpidearen aurka jokatu.

Esleipen-hartzailea zuzenean hautatu izana justifikatzeko argudioa izan zen kontraturiko lanaren berezitasun teknikoa eta hautatutako enpresak lan hori egiteko zeukan ahalmena.

- Logistika eta garraio klusterra. Guztizko zenbatekoa: 40.020 euro.

CEINek zuzenean esleitu zuen kontratu hau. Kontratuaren xedea gauzatzeko ahalmena zeukaten beste enpresa batzuei ez zitzaion eskaintzarik eskatu.

Zuzeneko esleipenaren justifikazioa izan da esleipen-hartzaileak duen esperientzia jakina eta frogatua.

Bi kontratuetan, zuzeneko esleipenaren justifikazioa jasota dago CEINeko bi teknikaririk eta zuzendari kudeatzaileak izenpeturiko aktan.

- EDUCA proiektuaren zuzendaritza. Guztizko zenbatekoa: 74.629 euro.

EDUCA proiektuaren zuzendaritza 2000. urtean kontratatu zen. Hautaketa egin zen IKTn espezializaturiko eta CEINek homologaturiko enpresa eta profesionalen artean, zeinei jakinarazi baitzitzaion zein zen kontratatu beharreko eragiketa.

2004. urteko kontratua 2000. urtean sinaturiko kontratuaren luzapen bat da.

- EDUCA proiektuaren birdiseinu grafikoa. Guztizko zenbatekoa: 19.766 euro.

Kontratu honen xedea jakinarazi zitzaion diseinu eta komunikazioaren esparruan diharduten Nafarroako zazpi enpresari, eta esleipena egin zitzaion eskaintza aurkeztu zuten bost enpresetako bati.

Ciudad del transporte de Pamplona S.A.

- Garraioaren hiriaren maketa egitea, guztira 20.506 euroko zenbatekoaren truke.

Kontratu hori publizitaterik gabeko prozedura bati jarraituz esleitu zen, aurretiaz bi eskaintza eskatu ondoren.

Esleipen-modu hori hautatu izana justifikatzen duen txosten bat badago, enpresa publikoko arkitectoak eginikoa. Bertan aipatzen du kontratuaren xede den lanaren arloan espezializatuak diren enpresen urritasuna.

- Ibilgailu astunen aparkalekua kontrolatu eta zaintzea. 2004. urteko guztizko zenbatekoa: 76.033 euro.

2004. urtean indarrean dagoen kontratua da 2000. urtean sinaturiko kontratuaren luzapen bat.

Enpresa publikoak publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraitu zien ibilgailu astunen aparkalekua ustiatzeko zerbitzuen lizitazioan.

Esleipen-hartzaileak zerbitzuan jarduten urtebete zeramanean (1999an lehiaketa publiko baterako deialdia egin eta deialdia hutsik geratu eta gero esleitu zen zerbitzu hori) zerbitzua ematen segitzeari uko egin ondoren, presako prozedura bati ekin zitzaion: zazpi eskaintza eskatu ziren eta, horiez gain, ordura arte zerbitzua ematen aritu zen enpresako langileek osaturiko sozietateak proposamen bat egin zuen.

- Berdegune, parke, lorategi eta zuhaitzien mantentze-lanaren guztizko zenbatekoa, 2004. urtean, 31.666 eurokoa izan zen.

Zerbitzu hori zuzenean esleitu zitzaion, 1999an, landaketak egin zituen enpresa berari. Ez

zitzaion eskaintzarik eskatu beste inolako enpresari.

Zuzeneko esleipen hori "Ciudad del Transporte" enpresaren administrazio kontseiluan onetsi zen, bilerako aktak agertzen duenez, eta salbuespen gisa; izan ere, akordio bat hartuta zegoen, enpresa publikoak emandako zerbitzuak lehiaketa publikoen bitartez eta publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraituz esleitzekoa. Erabaki hori justifikatzeko arrazoiak ez dira inon ageri.

- Zaintza eta segurtasuna: horien guztizko zenbatekoa 160.637 eurokoa izan zen 2004. urtean.

2004. urtean indarrean zegoen zaintza eta segurtasun kontratua 2001. urtean esleitu zen, publizitaterik gabe, presako prozeduran bost enpresari eskaintzak eskatu ondoren, zerbitzua lehenagotik esleitua zeukanarekin kontratua ez berritzea suertatu eta gero.

2006an lehiaketa publiko baterako deialdia egin zen, konkurrentzia sustatuz eta lizitazio publiko eginez, aztertutako zerbitzu hori berriro ere esleitze aldera.

Ciudad del Transporte SA enpresa publikoak garraioaren hiriko jabe-erkidegoaren lehendakari-tza dauka eta haren kudeaketan parte hartzen du. Halaber, berari dagokio elementu komunentz, kontserbazio, zaintza eta begiralekua kontratuak sinatzea.

Gestión Ambiental Viveros y repoblaciones, S.A.

- Urbasako campingean urbanizazio-lanak egitea. Zenbatekoa: 222.973 euro.

Lan horiek Nafarroako Gobernuaren enkargu baten ondorio dira, eta hiru enpresari gonbita egin ondoren esleitu ziren; izan ere, lehenago deitutako lehiaketa publiko hutsik geratu zen.

- Baztango begiratokiaren zoladura zaharberritzeko obrak. Zenbatekoa: 29.750 euro.

Obra hauek lizitatu ziren hiru eskaintza eskatuta, enpresak 3.000tik 30.000 eurora bitarteko kontratazioetarako onetsita zeukan prozedurari jarraituz.

Obrek amaieran izan duten kostua 43.705 eurokoa izan da, aurreikusitako obra-unitateen gehikuntzarenatik eta aurrekontuan sartuta ez zeuden unitate berriak sartzeagatik.

- Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroaren zerbitzuak. Zenbatekoa: 627.515 euro.

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa fundazio bat da, Viveros y Repoblaciones eta Navarra Medio Ambiente Industrial enpresa publikoek 2002an erdi bana eratua.

Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak Viveros y repoblaciones enpresari fakturaturiko zerbitzuak ez datoz bat "kontratu" kontzeptuarekin –halaxe adierazi zuen enpresa publikoak, Compotos Ganberak igorri zion inkestan–, baizik eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

a) Kudeaketa eta koordinazio gastuetarako transferentzia. Zenbatekoa: 467.500 euro. Baliabideen zentroak enpresa publikoari eginiko fakturan ez dira adierazten gastu finantzatuaren xehetasunak.

b) Bi proiekturen exekuziorako laguntza teknikoa, bata 2000ko uraren kultura berri bat gauzatzeko herritarren foro bat abiaraztekoa eta bestea Natura 2000 Sarearen garapenerakoa. Zenbatekoa: 160.000 euro. Nafarroako Gobernuak 160.000 euroko dirulaguntza eman zion Viveros y Repoblaciones enpresari, proiektu horiek exekutatzeko. Exekuzio-eginkizun hori, ordea, ez zion enkargu batean gauzaturik ezarri. Viveros y repoblaciones enpresak Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa deritzon fundazioari agindu zion proiektua prestatzea, eta hari ere 160.000 euro ordaindu zizkion.

Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.

- Gourmets feria. Zenbatekoa: 96.750 euro gehi BEZa.

Kontratuaren xedea da ICANek parte hartzea Madrilen eginiko gourmetaren klubaren XIX. nazioarteko aretoan, eta zenbatekoa erabili zen inskripzioarako eta tokiaren alojerarako, ICANek aurkezturiko onarpen-eskaeran agertzen denez.

- Madrid fusión aperitiboa: Gastronomiako nazioarteko II. gailurra. Zenbatekoa: 21.035 euro gehi BEZa.

ICANek zuzenean hautatuko Nafarroako jate-txe batek zerbitzatu zuen janaria.

- Alimentaria 2004rako postuak eraiki, muntatu eta desmuntatzeko proiektua. Zenbatekoa: 234.483 euro gehi BEZa.

Proiektu hori lizitatu zen publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraituz.

Instituto Técnico de Gestión Agrícola, S.A.

- Goi-tentsioko linea eraikitzea Cadreitako finkan. Zenbatekoa: 55.692 euro.

Kontratu hori esleitu zen alde zuzenetik lau enpresari lizitazio prozesuan parte hartzeko gonbita eginda.

- Cadreitako finkarako altzariak erostea. Zenbatekoa: 29.911 euro.

Kontratu hori lizitatu zen alde zuzenetik bost enpresari eskaintza ekonomikoa eskatuta.

- Eraikin zentrala eraikitzea Cadreitako finkan, zeinaren zenbatekoa, 2004an, 272.580 euro izan baitzen.

Obra-kontratu hori 2002an esleitu zen, 963.123 euroko zenbatekoarekin, eta kontratuei buruzko legedian ezarritako publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraituz. 2004. urteari egotzitako gastua 272.580 eurokoa da.

Instituto Técnico de Gestión Ganadero, S.A.

- 2004an emandako albaitaritza-zerbitzu profesionalen alogera, ardi-aziendaren genotipo-probetan laguntzeko (zenbatekoa: 22.575 euro) eta azienda-saneamenduko kanpainan laguntzeko (zenbatekoa: 542.489 euro).

Zerbitzu horiek, gobernuak enkarguan emandakoak, zuzenean esleitu zitzaizkion kanpoko enpresa bati, publizitaterik eta konkurrentziarik gabe.

ITG Ganaderok zuzeneko esleipen horretarako emandako justifikazioa da enpresa esleipen-hartzailea dela honako bi ezaugarri hauek dituen bakarra: plantillan albaitariak izatea eta lan objektibo bat egitea bermatzea, bere dirusarrera guztiak edo gehienak saneamendu-kanpainen ondoriozkoak baitira, eta ez zuzenean abeltzainen baitakoak. Gure ustez, argudio horrek ez du justifikatzen kontratuaren lizitazioa publizitaterik eta konkurrentziarik gabe egitea.

Azienda-saneamenduko kanpainarako zerbitzu profesionalen alogera-kontratuak gainditu egiten du Europar Batasuneko legediak ezarritako muga, 236.945 eurokoa (BEZa kanpo), zerbitzu publikoen hornidura, laguntza eta kudeaketa kontratueterako. Horrenbestez, kontratuei buruzko legea bete behar zuen, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio-prozedurei eta esleipen-moduei dagokionez.

- Txerri-aziendaren saneamendurako osasun-programa. Zenbatekoa, 2004. urtean: 262.381 euro.

Gobernuak ITG Ganadero-ri eman zion zerbitzu horien gaineko ardura, eta Nafarroako txerri-aziendaren osasun-defentsarako elkarrekin izan zen

zerbitzu-emaile. ITG Ganadero eta esleipen-har-tzailearen arteko harremana gauzatu da bi entita-teek sinaturiko hitzarmen batean.

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.

- NGAren eredu estrategikoaren diseinua. Zenbatekoa: 25.862 euro gehi BEZa.

Laguntza teknikoko kontratu hori esleitu zen lau eskaintza eskatu ondoren. Esleipen-prozedura hori erabili izana justifikatzen da, baldintza-orrian agertzen denez, kontratuaren zenbatekoa kontuan harturik; izan ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez laguntza teknikoko kontra-tuak lizitatzeari dagokionez kontratuei buruzko foru legeak ezarritakoa baino txikiagoa da.

- Sarrigurenen bulego-eraikin bat eraikitzeko proiektua prestatzea eta horretarako zuzendaritza fakultatiboa. Zenbatekoa: 630.000 euro gehi BEZa.

Lizitazioa lehiaketa publikoaren bitartez egin zen, kontratuei buruzko foru legeari loturik enpre-sen gaitasunari, lizitazio-prozedurari eta esleipen-moduari dagokienez. Ez zen, ordea, publizitaterik egin Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, nahiz eta horixe ezarrita dagoen 236.945 euro (BEZa kanpo) gain-ditzen dituzten laguntza teknikoko kontratueterako.

Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.

- Azagrako hondakin-urak tratatzeko obrak. Zenbatekoa: 2.993.039 euro.

Obra-kontratu horren lizitazioa egin da lehiaketa mugatuaren bitartez, eta publizitate, konkurren-tzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraituz.

- Iparraldeko hondakin-uren garraio eta trata-mendurako instalazioen mantentze-lana. Zenbate-koa: 856.256 euro.

Kontratu hori lehiaketa irekiaren bitartez lizitatu zen, prentsan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean publizitatea eginez. Ez da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 236.945 euro (BEZa kanpo) baino gehiagoko zenbatekoa duten laguntza teknikoko kontratueterako horrela ezarrita dagoen arren.

- Lodosa-Sartagudako hondakin-uren araztegi-rako hondeaketa geoteknikoak. Zenbatekoa: 26.040 euro.

Kontratu horren lizitazioa egin zen hiru eskaintza eskatu ondoren eta enpresaren kalitate-eskuli-buruan araututako kontratazio-prozedurari jarraituz.

Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.

- Ur-analisiak. Zenbatekoa: 117.976 euro.

Kontratu horren jatorria da Nafarroako Gobernuak 2002an eginiko enkargu bat, urtero luzaturikoa. Kontratuak publizitaterik gabe esleitu zen, eta konkurrentzia hiru eskaintzatarara mugatuz.

Namainsak 2004an erosketa-prozedura bat onetsi zuen, eta bertan ezartzen dira kontrataturiko enpresek bete beharreko ingurumen, kalitate eta lan-arrisku arloko betekizunak.

- Nafarroako Gobernuaren neurketa-estazioen telekontrolerako sistema. Zenbatekoa: 27.381 euro.

Kontratu hori, gobernuaren enkargu baten ondoriozkoa, esleitu zen hiru eskaintza eskatu ondoren.

Navarra de Servicios, S.A.

- NAPIren eraikineko patioaren zoladurarako obrak.

Nafarroako Gobernuak enkarguan eman zizkion obra horiek enpresa publikoari, eta Nasersak kanpoko enpresa bati esleitu zizkion, 77.940 euroko zenbatekoan. Esleipena egin zitzaion Nasersak eskaturiko hiru eskaintza ekonomikoetatik onuragarriena zenari. Ez zen lizitazioaren publizitaterik egin, eta konkurrentzia mugatu zen hiru eskaintzatarara.

Nasersa enpresak 15.000 eurotik 90.000ra bitarteko zenbatekoa duten kontratazioeterako ezarritako prozedurak ezartzen du hiru eskaintza eskatu behar direla eta prentsan iragarkia argitaratu behar dela, konkurrentzia handiagoaren bitartez abantailaren bat lortzeko aukera ikusten baldin bada.

- Abere-osasunaren arloko zereginetarako Nafarroako Gobernuak duen aplikazio informatikoaren mantentze-lanetarako kontratuak. Zenbatekoa: 83.788 euro, 2004. urtean.

Kontratu hori Nafarroako Gobernuaren enkargu baten ondoriozkoa da. Haren jatorria da Nasersak kanpoko enpresa bati 2001ean egin zion esleipena, lehiaketa publiko baten bidezkoa. Esleipen haren helburua izan zen Nafarroako Gobernuak abere-osasunaren arloko zereginetarako daukan modulu informatikoaren garapena egitea, kontratu sinatzen zenetik lau hilabeteko epean.

- Perituen eraikinaren gastuak. Zenbatekoa: 41.216 euro, 2004an.

Gastu horiek Nasersari fakturatzen dizkio perituen eraikina kudeatu eta administratzeko 2003an eratu zen sozietate zibilak. Eraikin hori gobernu-

ren jabetzakoa da, eta bertan kokaturik dauden bost enpresa publikoei atxikia dago.

Sozietate zibila kapitalik gabe eratua da, baina bazkideek eraikinaren kudeaketa eta administrazio gastuetarako ekarpenak egiteko konpromisoa hartu zuten. Sozietate zibilak ez dauka langilerik. Naser-sari ahalmena eman zaio sozietate zibilaren helburuarekin zerikusia daukaten kontratuak egiteko.

Navarra de Suelo Industrial, S.A.

- Sarrigurenako iparraldea, II. fasea, urbanizazioa, 5.680.868 euro gehi BEZaren truke, eta Sarrigurenako Berrikuntza Hiriko aparkalekua, 1.406.343 euro gehi BEZaren truke.

Bi obra-kontratu horien esleipenean publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak aplikatu dira.

- Anue ibarreko toki-esparruko jarduera ekonomikoen eremua urbanizatzeko proiektua prestatzea. Zenbatekoa: 191.376 euro gehi BEZa.

Kontratu hori publizitaterik eta konkurrentziarik gabe esleitu zen, hiru eskaintza eskatu ondoren. Publizitaterik egin ez izanaren justifikaziorik ez da inon ageri.

- Azpiegiturak egokitzea Buñuelen. Zenbatekoa: 145.978 euro gehi BEZa.

Obra horiek publizitatea eginez lizitatu dira.

Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.

- Tuterako ETI Valle Del Ebro eskolako kablea-tua (zenbatekoa: 106.655 euro) eta tuneletan zuntz optikoa instalatzeko kontratua (zenbatekoa: 123.799 euro).

Bi kontratu horiek lizitatu ziren publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraituz, lehenbizikoa enkante bidez eta bigarrena lehiaketa bidez.

- 012-infolocal plataforma zabaltzea. Zenbatekoa: 84.860 euro.

Kontratu hori publizitaterik gabe esleitu zen, lau eskaintza eskatu ondoren. Prozedura hori ez dator bat enpresak ezarritakoarekin, azken horrek ezartzen baitu horrelako kontratu eta zenbatekoen esleipenerako lehiaketa edo enkantea eginen dela.

Riegos de Navarra, S.A.

- Mélidako ureztaketa modernizatzeko obrak. Zenbatekoa: 4.360.097 euro.

Obra horiek Nafarroako Gobernuaren enkargu baten ondoriozkoak dira, eta enkante bidez esleitu dira, publizitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioak betez.

- Perituen eraikinaren mantentze-zerbitzua. Zenbatekoa: 48.648 euro, 2004an.

Perituen eraikinaren gastuetarako. Gastu horiek eraikin horretan kokaturiko entitateen artean eraikinaren kudeaketarako eraturiko sozietate zibilak fakturatuak dira.

Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.

- Zuzenbide eta merkataritza arloetako aholkularitza-zerbitzuak. Zenbatekoa: 182.703 euro.

Zerbitzu horiek honakoetan gauzatuak dira: merkataritza arloko aholkularitza, prozedura judicial, administratibo edo arbitraje arloetan erreklamazioak eta errekurtsioak aurkezteari buruzko aholkularitza eta haiek prestatzea. Horrez gain, konplexutasun, luzera edo berezitasun handiko gaietan bestelako zerbitzuak ematea.

Zerbitzu horiek emateko enkargua zuzenean egin zitzaion, 2001ean, kanpoko profesional bati, publizitaterik eta konkurrentziarik gabe, enpresa esleipen-hartzailearen konfiantzazkotasun eta eskuragarritasunarekin zerikusia zuten irizpideak kontuan hartuz, Sodenak azaldu duenez.

- "Nafarroa: guztion arteko etorkizuna eraikiz" izeneko erakusketa diseinatu, ekoitzi eta egitea. Zenbatekoa: 3.000.000 euro gehi BEZa.

Kontratazio hori 2005ean egin zen, eta enkargu baten ondoriozkoa da. Enkargu hori txosten honen VI.3 epigrafean aztertzen da, eta Nafarroako Gobernuak SODENARI egin zion, Nafarroari buruzko erakusketa baterako plangintza eta antolaketa lanez arduratzeko.

Enkargua onestean, Nafarroako Gobernuak lan-talde bat eratzea erabaki zuen. Lan-talde hori osatzen dute Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo kontseilariak, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak, Komunikazio zuzendari nagusiak, gobernuko lehendakariaren aholkumailuek eta SODENAREN ordezkari batek. Lan-taldearen zeregina da erakusketaren edukia, aurrekontua, finantzaketa, epeak eta gainerako elementuak zehaztea.

Erakusketaren egitea zuzenean hautaturiko fundazio pribatu batekin kontratatzea baimendu zuen aipaturiko lan-taldeak. Fundazio hori publizitate eta konkurrentziarik gabe hautatu zen, kalitate eta prestigioako erakusketen diseinuan eta antolaketan zeukan esperientzia kontuan harturik.

Nafarroako Gobernuaren enkargua eta lan-taldearen jarraibideak betetzeko, SODENAK kontratua sinatu zuen fundazioarekin.

236.945 euro baino gehiagoko zenbatekoa daukaten laguntza teknikoko kontratuetan –horrelakoa da hizpide dugun kontratua–, sozietate publikoak ez daude aurreko lerrokan zerrendaturiko printzipioei soilik lotuta, baizik eta kontratuei buruzko foru legearen xedapenak ere bete behar dituzte enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio-prozedurari eta esleipen-moduei dagokienez.

- Nafarroako zerbitzuen sektoreko plan estrategikoaren garapenerako laguntza teknikoak. Guztizko zenbatekoa: 130.908 euro (gastuak kanpo).

Zerbitzuen sektoreko plan estrategikoaren garapena kontsultoretza-enpresa bati esleitu zitzaion, proposamena eskatu zitzaion lau enpresaren artean hautaturikoa. Sodenak justifikatu egin zuen publizitateari egin ez izana eta konkurrentzia mugatu izana.

Trabajos Catastrales, S.A.

- Laguntza teknikoko kontratua, Madril fotogrametriko birsortzeko. Zenbatekoa: 406.050 euro gehi BEZa.

Laguntza hori zuzenean esleitu zitzaion enpresa bati, zeinaren partaidetzaren % 50 Tracasa SAren eskuetan baitzegoen. Kontratuei buruzko foru legeak enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio-prozedurei eta esleipen-moduei buruz xedatzen dituenak urratu egin dira, nahiz eta laguntza kontratu hau xedapen horietara lotuta egon, 236.945 euro (BEZa kanpo) baino gehiagoko zenbatekoa izateagatik.

Comptos Ganberak bidali zion inkestan Tracasak adierazitakoaren arabera, zuzeneko edo zeharkako (NGA SA enpresa publikoaren bitartez) partaidetza daukaten enpresei zuzenean esleitzen zaizkie zerbitzuak, publizitate eta konkurrentziarik gabe.

Zuzeneko edo zeharkako partaidetza daukaten enpresei Tracasak 2004an zehar zuzenean eginiko esleipenak, 12.020 euro baino zenbateko handiagokoak, 945.462 eurokoak izan ziren, eta honako hauetarako izan ziren:

Enpresa esleipen-hartzailea:	Enpresa esleipen-hartzailean duen partaidetza.	Kontratuen zenbatekoa, guztira	Kontratu-kopurua
Téc. Cartográfica andaluza SA	% 50ekoa, Tracasarena	672.706	5
Tasaciones y Consultoría	% 50ekoa, NGArena	229.392	4
Regional Geodata Air SA	% 42,5ekoa, NGArena	43.364	2
Guztira		945.462	11

- Altzariak erostea. Zenbatekoa: 13.199 euro gehi BEZa. Altzari-hornidura zuzenean esleitu zen.

Urratu egin zen Tracasak ezarritako irizpidea; alegia, 3.000tik 18.000 eurora bitarteko zenbatekoa duten erosketen kasuan hiru eskaintza eskatzea, eta eginiko esleipena justifikatzeko txosten bat egitea.

Halaber, eta altzari-erosketa horri dagokionez, hornitzaileari igorritako erosketa-aginduetako bat faktura baino geroagokoa da.

- Laguntza teknikoko kontratua, datuak grabatzeko. Zenbatekoa: 12.311 euro gehi BEZa.

Kontratu hori zuzenean esleitu zaio Tracasak eskaturiko hiru eskaintzetako bati, aztertutako lana egiteko.

2004an eginiko datu-grabaketako lanen zenbatekoa 41.505 eurokoa da; beraz, lehiaketa bidez eta publizitate eta konkurrentziarekin lizitatu behar izan ziren, Tracasa enpresako kudeatzaileak ezarritako irizpidearen arabera.

- Nafarroako Zerga Ogasunaren proiektu-kudeaketarako eta errenta 2003ko aplikazioen nahiz muinaren mantentze-lanetarako kontratuak. Zenbatekoa: 1.138.870 euro gehi BEZa.

Kontratu horren jatorria Gobernuaren enkargu bat da, 1.659.460 eurokoa (gehi BEZa), eta lizitazio-orako erabilitako modua lehiaketa izan zen.

Frogatuta dagoen lizitazio-publizitate bakarra Foru Komunitateko egunkari batean eginikoa da; hori horrela, ez dira bete kontratuei buruzko foru legeak publizitateari buruz jasotzen dituen agindurak. Agindu horiek aplikatzekoak dira kasu honetan, 236.945 euro baino gehiagoko (BEZa kanpo) zenbatekoa duen laguntza teknikoko kontratu bat izateagatik.

- Madrilen gaineko hegaldi fotogrametrikoaren kontratazioa. Zenbatekoa: 32.997 euro gehi BEZa.

Kontratu hori zuzenean esleitu zitzaion kanpoko enpresa bati, lan hura egitea presako kontua zela agudiatuz.

- ERDAS lizentziak erostea. Zenbatekoa: 37.706 euro gehi BEZa.

Tracasa enpresak zuzenean hautatutako hornitzaile bati erosi zitzaizkion lizentziak, publizitaterik eta konkurrentziarik gabe, eta justifikazio gisa adieraziz huraxe zela kontratuaren xedea gauzatu ahal izateko zegoen bakarra.

Viviendas de Navarra, S.A.

- Tuteran salmentarako 100 babes ofizialeko etxebizitza eraikitze lanak egiteko eta haien zuzendaritzaz arduratzeko proiektua. Zenbatekoa: 342.731 euro.

VINSAk ez zuen publizitaterik egin, ez eta konkurrentziarik sustatu ere, laguntza-kontratu hori esleitzeko. Enpresa publikoak berretsi digunez, jardunbide hori erabili ohi da obra-proiektuen prestaketa eta obren zuzendaritzarako kontratuak esleitzeko.

Kontratuei buruzko foru legeak enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio-prozedurei eta esleipen-moduei buruz ezarritako aginduak urratu egin

dira. Agindu horiek, Europako legedia dela medio, 236.945 euro (BEZa kanpo) baino gehiagoko zenbatekoa duten laguntza teknikoko kontratuek nahitaez bete beharrekoak dira.

- Sarrigurenen 88 etxebizitza, garaje, trasteleku eta lokal eraikitzea (zenbatekoa, BEZa kanpo: 7.148.142 euro) eta Sarrigurenen 78 etxebizitza, garaje, trasteleku eta lokal eraikitzea (zenbatekoa, BEZa kanpo: 6.455.064 euro).

Bi obra-kontratu horiek lehiaketa irekiaren bidez esleitu ziren, eta prentsan publizitatea egin ez.

Kontratuei buruzko foru legeak publizitateari buruz ezarritako arauak, VINSa enpresa publikoaren bi obra-kontratu horiek beren zenbatekoarengatik (BEZa kanpo, 5.923.624 euro baino gehiagoko zenbatekoa daukate) eta Europako legedia dela medio bete beharko lituzketenak, ez dira bete.

Laburbilduz, enpresa publikoek 2004an sinaturiko obra, hornidura eta laguntza teknikoko kontratuak, Comptos Ganberak aztertu dituenak, honako prozedura hauen bitartez esleitu dira:

Aztertutako kontratazioak

Esleipen-prozedura	Zenbatekoa	Kontratu kopurua
A Zuzeneko esleipena, eskaintzarik eskatu gabekoa. Justifikazioa ageri da.	149.538	5
B Zuzeneko esleipena, eskaintzarik eskatu gabekoa. Ez da justifikaziorik ageri.	4.539.873	8
C Publizitaterik gabekoa, eskaintzak eskatuz eginikoa. Justifikatu gabe, edo enpresak ezarritako prozedura bete gabe.	390.799	4
D Publizitaterik gabekoa, eskaintzak eskatuz eginikoa. Justifikatuta, edo enpresak ezarritako prozedura beteta.	633.333	11
E Publizitatearekin eta konkurrentziarekin.	31.953.659	18
F Hertsiki obra, laguntza tekniko edo hornidura kontratuak ez diren gastuak.	1.076.510	5
Guztira	38.743.712	51
F Guztizko kopurutik, Europar Batasunaren araudiaren mugak gainditurik Europako legedia bete ez dutenak.	20.519.932	9

Beraz, lizitatu diren kontratuetako zortzi, 4.539.873 euroko zenbatekoa egiten dutenak, zuzenean esleitu dira, eskaintzarik eskatu gabe eta inolako justifikaziorik adierazi gabe, eta lau kontratu, guztira 390.799 euroko zenbatekoa egiten dutenak, publizitaterik gabe eta konkurrentzia mugatuz esleitu dira, kasu batzuetan enpresak ezarritako prozeduraren aurka eta, guztietan, behar adina frogatu gabe publizitatea egin ez izana eta konkurrentzia mugatu izana.

Berrikusitako 51 kontratuetatik, haietako bederatzik, guztira 20.519.932 euroko zenbatekoa egiten dutenak, Europar Batasuneko mugak gaindi-

tzen dituzte, eta ezin kasutan ez da Europako legedia bete, zeinak behartzen baitu 236.945 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten laguntza-kontratuak eta 5.923.624 euro baino gehiagoko obra-kontratuak (BEZa kanpo, bi kasuetan) egokitzea enpresen gaitasunaz, publizitateaz, lizitazio-prozedurez eta esleipen-moduez kontratuei buruzko foru legeak ezarritako arauetara.

Aurreko koadroan adierazitako esleipen-prozedurarako bakoitzean sartutako kontratuen zerrenda xehekatua jasota dago txosten honen II.2 eranskinean.

VI.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ENKARGUAK.

Honako hauek dira Nafarroako Gobernuak enpresa publikoei 2004an eginiko enkarguak, Comptos Ganberak berrikusitakoak, eta eginiko lanetik ateratako ondorioak:

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra S.A.

- Ikastetxeen eskola-kudeaketa eta kudeaketa akademikorako sistema zentralizatua garatu eta ezartzea. Zenbatekoa: 352.883 euro gehi BEZa.

Enkargu horren jatorria da 2000. urtean Herri lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Hezkuntza Departamentuak eta CEINEk sinaturiko berariazko lankidetzak-akordioa, informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzaren arloan txertatzeko proiektu pilotu bat garatze aldera.

2000n hasitako proiektua 2001, 2002 eta 2003an baimendu zen, aipaturiko akordioaren berriztapenak formalizatuz, eta 2004rako, berriz, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren enkargu baten bidez formalizatu zen.

Proiektuak "EDUCA proiektua" du izena, eta haren helburua da ikastetxeen kudeaketarako sistema informatiko bat sortzea.

CEINEk justifikatu egin ditu eginiko lanak eta proiektuko gastuak. Enkargatutako lanaren ondorioz gobernuari eginiko fakturazioa proiektuaren benetako kostua baino zertxobait baxuagoa izan da; zehazki, 2.869 euro gutxiagokoa.

Enkargua gauzatzearen truke Nafarroako Gobernutik jasotako dirusarrerak ustiapen-transferentzia gisa kontabilizatu ditu CEINEk, eta ez zerbitzu-ematearen ondoriozko dirusarrera gisa.

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A.

- Foru Komunitateko administrazioko langile publikoen prestakuntza Europar Batasuneko hizkuntzen arloan. Zenbatekoa: 64.014 euro.

Hizkuntzen arloan CNAIk 2003-2004 ikasturtean eginiko prestakuntza-jarduerak ez dira enkargu baten ondoriozkoak, baizik eta NAPIk eta CNAIk 2001ean izenpeturiko lankidetzak-hitzarmen baten ondoriozkoak.

CNAIk hileroko fakturak aurkezten dizkio NAPIri. Faktura horietan ordu-kopurua zehazki adierazten da, eta hizkuntzen arloko prestakuntza-jardueretarako onetsitako tarifak aplikatzen dira. Fakturatutako guztizko kopurua bat dator jarduera hauek egiteko onetsita dagoen aurrekontuarekin.

- "Ingeleseko hizkuntza-murgilketako egunezko ikastaroak 2004ko udarako" deritzon programa. Zenbatekoa: 8.000 euro.

Nafarroako Gobernuak 2004ko apirilaren 7an CNAIri enkargatu zion programa hau egitea. CNAI zerbitzuak emateko Foru Komunitateko bitarteko bereki eta instrumental gisa aitortzea 2005eko otsailean onetsi zen.

Enkargua arautzen duen baldintza teknikoen pleguaren arabera, Gobernuak gehienez ere 8.000 euro ordainduko dizkio CNAIri, janari-gastuetarako, eskola-jardueretarako eta programarekin zerikusia daukaten eskolaz kanpoko jardueretarako.

Onetsitako gastuak ez dio aurre egiten enkarguaren kostu osoari, baizik eta ikastaroaren kostu osoaren eta dirusarrearen artean estimaturiko aldeari. CNAIk bere gain harturiko eta Nafarroako Gobernuari fakturatu gabeko gastuak finantzatzen dira matrikulatutako ikasleen kuoten bitartez. Kuota horiek enpresa publikoak kobratzen ditu.

CNAIk Nafarroako Gobernuari fakturatu dio aurreikusitako gastua, 8.000 eurokoa. Ez da programako likidazio ekonomikoa egin, ez eta fakturatutako gastuen frogagiririk aurkeztu ere.

Ciudad del Transporte de Pamplona S.A.

- Garraioaren hirian aduanako unitateek eta zerbitzu osagarriek erabilitako eraikinaren garbiketara, mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kudeaketa integrala. Zenbatekoa: 44.020 euro gehi BEZa.

2004rako enkargua, zeina 2000. urtean eginikoaren luzapena baita, Gobernuak 2004ko ekainean onetsi zuen, 2004ko ekainaren 1wetik aurrerako ondorioekin. 2004ko lehen seihilekoan eginiko lan enkargatuak batera fakturatu ziren, 2004ko uztailako datarekin.

Garraioaren hiriari enkargatutako jarduketa guztiak kanpoko laguntzaileen bitartez egin lirateke. Laguntzaile horiek publizitate eta konkurrentziadun lehiaketa bidez kontratatu ziren.

Enpresa publikoak Nafarroako Gobernuari eginiko fakturazioa egiten da enkarguan aurrerikusitako gastuaren arabera, 44.020 euro gehi BEZa, eta enkargatutako prestazio guztiei buruzko xehetasunak emanez. Enkarguaren benetako kostua 41.200 eurokoa izan zen (gehi BEZa).

Gestión Ambiental Viveros y repoblaciones, S.A.

- Garbitze eta jorratze lanak, oihan birlandatueta. Aurreikusitako zenbatekoa: 344.129 euro gehi BEZa.

Viveros y repoblaciones enpresa publikoak Nafarroako Gobernuari fakturatutakoa, enkargatu zitzaizkion eta egin zituen lanetarako aurreikusitako guztizko kostuaren truke: 342.243 euro gehi BEZa. Haien egiazko kostua izan zen 248.187 euro gehi BEZa. Viveros enpresak fakturak eta obra-ziurtagiriak aurkeztu zituen, enkarguaren kostua justifikatze aldera.

Enkargatutako lanak osoki egin ziren kanpoko laguntzaileen bitartez, lehiaketa publikoa egin ondoren kontrataturikoak.

- Aniztasun biologikoaren kontserbazioa eta Nafarroako naturguneen sarearen plangintza eta kudeaketa, natura 2000 sarearena barne. Zenbatekoa: 625.172 euro gehi BEZa.

Enkarguak bere barne hartzen du 2004tik 2006rako epea. Viveros y repoblaciones enpresak 2004an eginiko jardueri dagokienez, enpresa horrek ziurtagiriak egin ditu, gauzatutako jardueri buruzko txostenak zituztenak, eta onetsitako lan proposamenean ezarritako prezioen arabera fakturatu du, jarduera bakoitzean exekutaturiko unitate errealean arabera.

Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.

- Nafarroan ekoizpen integratua abiarazi, garatu eta kontrolatzeari laguntzeko planaren enkargua, 2004rako. Zenbatekoa: 33.760 euro gehi BEZa.

ICANek Gobernuari aurkeztutako faktura egin da aurreikusitako kostua adieraziz, hau da, 39.162 euro, eginiko jarduerak aipatu eta xehekatu gabe.

Enpresan ez da ageri enkargua arautzen duen baldintza tekniko eta administrazio-klausulen orria.

Instituto Técnico de Gestión Agrícola, S.A.

- Cadreitan, Milagron eta Villafrancan euli zuriaren izurria kontrolatzeko enkargua. Zenbatekoa: 170.325 euro gehi BEZa.

Enkargatutako jarduketak izan dira euli zuriak kalteturiko eskualdeetan zenbait produktu aplikatzea. Horretarako, ITG Agrícola bi teknikari kontratatu zituen, eta enpresa publikoko plantillako zenbait teknikari produktuen banaketan, kontrolean eta haren aplikazioaren jarraipenean lagundu zuten.

Enkargu horri dagokionez, nahiz eta fakturatu-tako guztizko kostua ia-ia bat datorren hasiera batean Nafarroako Gobernuak aurreikusi eta onetsitakoarekin, ITG Agrícola langile finkoen gastu fakturatuak izan ziren aurreikusita zegoena baino ehuneko 55 gehiagokoak, eta euli zuriaren izurriaren kontrolean erabilitako produktuaren kontsumoaren ondoriozko gastuak ehuneko 24ko beherakada izan zuen.

Enkargatutako lanean ITG Agrícola langile finkoak aritzeagatik egotzi diren orduen jarraipena eta kontrola egin denik ez da inondik ageri.

- Nekazari, abeltzain, nekazaritza-elikadurako enpresetako langile eta nekazaritza-arloko teknikariek prestakuntza jasotzeko jardueretarako enkargua. Zenbatekoa: 587.458 euro.

Enkargu hori kokaturik dago Nafarroako nekazari eta abeltzainen prestakuntzarako jarduketaren programa baten barruan. Programa hori Europako Gizarte Funtsekoa da, 2000-2006 eperako.

ITG Agrícola 2004an egitekoak ziren prestakuntza-jarduketaren plana aurkeztu zuen. Plan hori nekazari eta abeltzainen prestakuntza-ekintzen jarraipenerako batzordeak onetsia zen. Horrekin batera, egindako prestakuntza-ikastaroen oroitidazkia ere bai. Oroitidazkian sarturik daude prestakuntza-jardueren ondoriozko gastuen justifikazioa eta jarduera horiei egotzitako kostuak kalkulatzeko irizpideak.

Ildo horretatik, Kontu-hartzaitza orokorrak 2003ko prestakuntza-jardueri buruz eginiko txostena aztertu da. Txosten hori onespenezko ondorioetara iritsi da, lagin baten berrikuspenean oinarriturik, dauden kudeaketa eta kontrol sistemei buruz eta gastu-justifikazioari buruz, baina ez ikasleei kuota kobratzeari dagokionez izandako kudeaketa akastunari buruz. ITGk akats hori zuzendu zuen aplikazio informatiko berri bat ezarri.

Instituto Técnico de Gestión Ganadero, S.A.

- Aziendaren saneamendu-kanpaina baterako enkargua, 2004. urterakoa. Aurreikusitako zenbatekoa: 720.213 euro gehi BEZa.

ITG Ganaderok zuzenean kontratatu zuen, albaitaritzako profesional batzuen kanpo-enpresa batekin, aziendaren saneamendu lan enkargatuak egitea. Kontratuaren zenbatekoa 563.492 eurokoa zen. Horrela, bada, enpresa publikoentzako enkarguak kanpoko laguntzaileen bitartez egin ahal izateari buruz legediak ezartzen dituen mugak gainditu egin ziren.

Eginiko zerbitzuak frogatzeko, ITGk fakturak eta haiei dagozkien albaranak aurkeztu ditu. Agiri horietan zehazten dira, batetik, egiazki saneaturiko buru-kopurua, eta bestetik, aleko prezioak, Nafarroako Gobernuak onetsitakoak.

Navarra de Gestión para la Administración, S.A.

- Informatika-zentroa kudeatu eta ustiatzea. Zenbatekoa: 1.536.042 euro gehi BEZa.

NGA SA enpresa publikoak 2004an Nafarroako Gobernuari fakturatutako zerbitzuak, guztira 1.536.042 euro gehi BEZa, informatika-zentroa kudeatu eta ustiatzearen ondoriozkoak, ez zituen Gobernuak aldez aurretik baimendu, ez eta onetsi ere.

Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusiaren komunikazio bat soilik ageri da, "Navarra de Gestión para la Administración SA sozietate publikoari eskatzeko beharrezkoak diren kontratuak formalizatzea, horrela informatika-zentroaren zerbitzua berrmatze aldera, lehenago aipaturiko enkargua formalizatu bitartean". Enkargu hori ez zen formalizatu.

NGA S.A.k eginiko prestazioa izan zen bere izenean formalizatzea mantentze-lanetarako, lizentziatarako eta gastu arruntetarako kontratuak, Nafarroako Gobernuak jadanik sinatuak zituenak zerbitzu horiek ematen zituzten kontratistekin. Guztira 18 kontratu ziren, eta haien zenbatekoa, BEZa kanpo, 1.365.725,03 eurokoa, eskaini zaigun dokumentaziotik ondorioztatzen denez.

NGA S.A.k Nafarroako Gobernuari prestazio horiengatik fakturatutako zenbatekoa 1.536.041,60 eurokoa da (BEZa sartu gabe).

- Segurtasun-plan korporatiboa Nafarroako Zerga Ogasunari egokitzeko enkargua.

Gobernuak NGA S.A.ri eginiko enkargu hori kokaturik dago Nafarroako Zerga Ogasuna eraldatzeko proiektuaren barrenean. Enkargua gauzatzearen nondik norakoak araututa daude Gobernuaren eta enpresa publikoaren artean sinaturiko lankidetzaz hitzarmenean.

NGAk Gobernuari 355.172 euro gehi BEZa fakturatu dio, eta hori da, hain zuzen ere, enkargurako onetsitako gehieneko aurrekontu orokorra.

NGA enpresa publikoak lehiaketa publiko bidez hautaturiko kanpo enpresa batekin kontratatu zituen enkargatutako lanak, honako zenbatekoarekin: 287.901 euro gehi BEZa. Horrela, bada, enpresa publikoei enkargatutako laguntza teknikoko lanak kanpoko laguntzaileen bitartez egin ahal izateari

buruz legediak ezartzen dituen mugak gainditu egin ziren.

Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.

- Nafarroako ur horniduraren plan zuzendariko informazio-sistema eguneratu eta kudeatzeko enkargua. Zenbatekoa: 31.466 euro gehi BEZa.

2004. urterako enkargu hori, Gobernuak 2000n Nilsari eginikoaren luzapena, Tracasa enpresa publikoak gauzatu zuen.

Tracasak aurkezturiko eskaintza ekonomikoak, teknikari baten urte osoko kostuari zegokionak, 2004. urtean Nafarroako Gobernuak enkargu hartarako eskueran zeukan aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa hartzen zuen: 36.500 euro.

Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.

- Nafarroako Gobernuaren neurketa-estazioen elikadura-proiektua eta telekontrol nahiz telekomunikazio sistemak egiteko enkargua. Zenbatekoa: 51.724 euro. Namainsak Gobernuari aurkezturiko fakturan –haren zenbatekoak barnean hartzen ditu guztira aurreikusitako 51.724 euro gehi BEZa– sartuta daude, halaber, Namainsak eginak ez diren zenbait lan, 8.800 euroko zenbatekoa dutenak eta bertan behera utziak, haiek egitea bideragarria ez zelakoan.

Aurkeztutako fakturan ez dira xehekatzen eginiko lanak bere barruan hartzen dituen kontzeptuak, eta era horretan, baldintza teknikoaren orrian ezarritakoa urratzen da.

Namainsak kanpoan kontratatu zuen enkargatutako lanak egitea. Zenbatekoa: 34.296 euro gehi BEZa.

Navarra de Servicios, S.A.

- NAPIko obrak planifikatu, programatu, proiektatu, egin eta ikuskatzeko enkargua. Aurreikusitako kostua: 193.061 euro gehi BEZa.

Enkargatutako lanetan sartzen da obra proiektuak egitea, obren zuzendaritza eta gauzatzear arduratzea eta haiekin loturik daude hornidurak eta zerbitzuak. Jarduera horiek ez datoz bat enpresaren helburu sozialarekin, zeina lotuta baitago honakoei: nekazaritza-elikagaiekin zerikusia duen zuzenbide, kontabilitate, lan, zerga, informatika eta laborategien alorretako aholkularitza-zerbitzua, nekazaritza-elikagaien sustapena eta bestelako zerbitzu operatiboak.

Enkargua onesten duen ebazpenean ezartzen denez, komenigarritzat jotzen da aipaturiko enpresara jotzea, "behar adinako gaitasun teknikoa duen Nafarroako Gobernuko ente instrumental gisa". Hala ere, 2004an enkargatutako jarduketa

guztiak, obren kudeaketa eta koordinazioa barne, kanpoan kontratatu dira, lizitazioaren publiziterik egin gabe eta konkurrentzia sustatu gabe edo, jar-

duketa batzuetan, konkurrentzia mugatuz.

Nasersari enkargatutako NAPIko obren zenbatekoa, 2003 eta 2004 urteetako, honakoa da:

	Aurreikusitako kostua, Nasersak NAPIri fakturatua	Obren kostu erreala
2003. urtean	155.849	122.242
2004. urtean	193.061	168.993
Guztira	348.909	291.235

Egiaztatu ahal izan denez, bai 2003an bai 2004an, NASERSAk NAPIri fakturatutako zenbatekoa da kanpoko laguntzaileek aurkeztutako fakturak gehi ehuneko 20, salbu eta proiektu-prestakuntzagatik eta obra-zuzendaritzagatik kobraturiko ordainsariak, zeinak zenbateko berean fakturatzeko baitira.

Navarra de Suelo Industrial, S.A.

- Buñuelgo industrialdean urbanizazioa bukatzeko enkargua. Zenbatekoa: 2.392.999 euro gehi BEZa.

Lan hori egiteko urte anitzeko gastu bat onetsi zen; zehazki, 797.666 euro gehi BEZa, 2005etik 2007ra bitarteko urte bakoitzerako. Aipaturiko lana ez da enkargu gisa formalizatu, baizik eta Nafarroako Gobernuaren eta NASUINSA enpresa publikoaren artean sinaturiko lankidetzaz hitzarmen baten bidez arautu zen, aurrekontuei buruzko legeak bi entitate horien artean hitzarmenak sinatzeko jasotako ahalmenaren babesean.

Izenpeturiko hitzarmenaren arabera, egin beharreko lanak dira proiektuak egin, industrialdea urbanizatzeko obrak gauzatu eta azpiegiturak lurratik berriari egokitu. Lan horiek sartuta daude NASUINSAren helburu sozialaren barnean.

NASUINSAk Buñuelgo industrialdea urbanizatzeko lan ia guztiak kontratatu egin ditu eta, horrela, kontratuen legean jarduketak kanpoko laguntzaileen bitartez egiteari ezartzen zaion muga gainditu egin da.

Nafarroako Gobernuak Nasuinsari 2005ean eginiko gastuengatik ordaindutako kopurua bat dator ekitaldi horretarako onetsitako gastuarekin, eta eginiko lanen egiazko kostua, 5.757 euro, baino pixka bat baxuagoa da.

Sozietate publikoak Nafarroako Gobernuari aurkezturiko fakturek zehaztu egiten dituzte eginiko gastuak, eta gastu horien frogagiriak erantsita izateaz gain, azalpenetarako txosten bat ere dau-

kate, faktura egin zen egunean eginda zeuden gastuen eta lanek zeukatzen egoeraren berri emateko.

Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.

- Nafarroan 2004an telebista-difusioa egiteko enkargua. Aurreikusitako zenbatekoa: 274.834 euro gehi BEZa.

Opnatelek Nafarroako Gobernuari fakturatu zion enkargatutako lanen kostu aurreikusia, eta kanpoko enpresa batekin kontratatu zuen lan hauek egitea, 263.078 eurotan.

- Nafarroako errepide-sarearen kontrolgunean obrak egiteko enkargua. Aurreikusitako zenbatekoa: 500.343 euro gehi BEZa.

Opnatel enpresak kanpoko laguntzaileen bitartez egin zituen Nafarroako Gobernuak enkarguan eman zizkion obrak. Laguntzaile horiek publizitate eta konkurrentziarekin hautatuak izan ziren, eta obren esleipenaren zenbateko orokorra 371.020 euro gehi BEZa izan zen. Opnatelek Nafarroako Gobernuari fakturatutako zenbatekoa izan zen enkarguaren kostu aurreikusia: 500.343 euro gehi BEZa.

Bi enkargu horietan gainditu egin dira enpresa publikoei enkarguan emandako lanak kanpoko laguntzaileen bitartez egiteari dagokionez legediak ezartzen dituen mugak.

Riegos de Navarra, S.A.

- Mélidan ureztaketa modernizatzeko obrak egiteko eta haien zuzendaritzarako enkargua. Aurreikusitako kostua: 7.031.588 euro.

Enkargua aldatu egin zen, obren esleipenean izandako beheraketaren ondorioz. Onetsitako gastu osoa 5.711.592 eurokoa izan zen. Zenbateko horretatik, 1.082.540 euro dira Mélidako Udalak obren onuradun gisa eginiko ekarpena.

Obren gauzatzeak gutxi gorabehera enkarguaren aurrekontuaren ehuneko 66 hartzen du, eta gauzatze horretan jardun da, obra guztiak eginez, kanpoko enpresa bat, Riegos de Navarrak enkante publiko bitartez hautatua.

Riegos de Navarrak Nafarroako Gobernuari frogatu dio eginiko gastua, eta fakturak aurkeztu ditu, kasuan kasuko obra-ziurtagiriekina batera.

Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.

- "Navarra...!" izeneko erakusketa planifikatu eta antolatzeko lanak egiteko enkargua.

Nafarroako Gobernuak, 2004ko irailean eginiko bilkuran, erabaki zuen Sodenari "Navarra...!" erakusketa planifikatzeko eta antolatzeko lanak enkargatzea, eta horretarako lan-talde bat eratzea, hark erakusketaren edukia, aurrekontua, finantzaketa, epeak eta gainerako elementuak zehazte aldera.

Lan-taldeko kideak dira Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria, Komunikazio zuzendari nagusia, Gobernuko lehendakariaren aholku-emaile bat eta SODENAREN ordezkari bat.

Erakusketaren helburua da Nafarroak duen potentziala erakustea, dauden baliabide teknologikoen bitartez. Erakusketa 2006ko azken lauhilekorian Baluartean egitea programatuta zegoen, eta haren iraupena gehienez ere hiru hilabetekoa izatea zegoen aurreikusita.

Lan-taldeak erakusketaren plangintza eta antolaketa enkargatu zion, osoki eta zuzenean, helburu gisa kultura eta artea beren agerpen guztietan suspertzea duen fundazio bati. Sodenari enkargatutako eta elkarlanean egindako lanek gainditu egiten dituzte administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako mugak.

Erakusketak duen kostu aurreikusia 3 milioi euro gehi BEZa da. Erakusketaren aurrekontua lan-taldeak finkatua da. Kostu horren barrenean sartu gabeko gastuak dira Baluarteren alogera, katalogoak eta foiletoak editatu eta ekoiztea eta publizitate-espazioen kostua.

Ez da ageri Nafarroako Gobernuak enkargua gauzatzeko aurrekontua onetsi zuenik, ez eta horretarako gastua onetsi zuenik, ez eta inolako akordiorik dagoenik erakusketaren finantzaketari buruz.

Lan-taldeak 2004ko abenduaren 21ean eginiko bileraren aktan adierazten denez, aurreikuspena da erakusketa finantzatzea babesletza bitartez, eta Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea sor litekeen balizko defizita.

Gobernuak Sodenari 2004an enkargua emandako lanaren edukia, bere aurrekontua, finantzaketa, epeak eta erakusketaren gainerako elementuak deskribatuta agertzen dira erakusketaren proiektu exekutibo edo xehetasunezkoan, zeina Arte Viva Fundazioak aurkeztu baitzuen eta erakusketaren jarraipen eta kontrolerako batzordeak onetsi baitzuen. Batzorde horretako kide dira azterturiko enkargua Gobernuak onetsi zuenean eraturiko lan-taldeko kideak.

Trabajos Catastrales, S.A.

- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren enkargua, Europar Batasuneko abeltzaintza-laguntzen, esne-kuotaren eta esnearen higijene-kalitatearen kontrolaren kudeaketa administratibo eta informatikorako. Zenbatekoa: 367.028 euro gehi BEZa.

Enkargu horrek berarekin dakar honelako jarduera hauek egitea, besteak beste: ikuskapena ustiatzietan eta esne-laginak hartzea, ardi-azien daren landa-ikuskapenak, abere-identifikazioa eta Nafarroan eginiko abeltzaintza-lehiaketetan esku hartzea. Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoek jo dute jarduera horiek Tracasaren helburu sozialean sartuta daudela.

Tracasaren helburu sozialak barnean hartzen du mota guztietako lanak egitea; lan horiek, zeharka edo zuzenean, honetarako balio behar dute: aberastasunari buruzko inbentario eta erregistroak ezarri, zaindu eta kudeatzeko, bai eta datu-bankuak orokorrean, eta proiektu informatikoak garatu eta gauzatzeko.

Enkargua 2004ko maiatzean onetsi zen, eta enkargatutako jarduerak, Tracasako langileek eginak, 2004ko urtarrilean hasi ziren. Urtarriletik maiatzera (biak barne) bitarteko gastuak 2004ko ekainean fakturatu zituen Tracasak.

Tracasak Nafarroako Gobernuari hilerok justifikatzen dizkio eginiko lanak, enkarguan adosturiko baldintzen eta prezioen arabera fakturak aurkeztuz.

- Sistema ekonomiko-kontabilitatekoa, giza baliabideak, O-NOZeko biltegiak eta toki administraziozko azpiegituren kudeaketarako aplikazioa mantentzeko eta haietarako laguntza teknikoa emateko enkargua. Aurreikusitako kostua: 3.812.167 euro gehi BEZa.

Enkargu hori egiteko Nafarroako Gobernuak onetsitako gastua 3.812.167 euro gehi BEZa da, eta 2004tik 2006ra bitarteko ekitaldiei egotzi zaie. Hona xehekapena:

2004. urtea, apirilaren 1etik aurrera: 847.512 euro

2005. eta 2006. urteak: 1.482.328 euro urte bakoitzean

Txosten bat ageri da, zeinean adierazten baita ezen Informazioaren gizarterako Zuzendaritza Nagusiak ez dituela lan horiek egiteko behar diren baliabideak, eta lan haiek Trabajos Catastrales SA sozietate publikoari enkargatzeko asmoa duela.

Alabaina, enkargatu zaizkion lan gehienak kanpoko laguntzaileen bitartez egin ditu Tracasak; hain zuzen, 1.874.504 euroko zenbatekoa egiten dutenak 2004ko apirilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitarteko epean, geroago beste 81.897 eurotan handitua. Era horretan, enkarguak kanpoko laguntzaileen bitartez egiteari dagokionez lege-diak ezarritako mugak gainditu egin dira.

Enkargatutako lanen esleipena publizitate eta konkurrentziarekin egin zuen Tracasak.

- Nafarroan SIG-PAC ezartzeko enkargua. Aurreikusitako kostua: 1.008.722 euro gehi BEZa.

Tracasak Nafarroako Gobernuari fakturatu dio enkargatutako lanen zenbateko aurreikusia, lanen neurketa eta aleko prezioa adierazten duten fakturak aurkeztuz.

Viviendas de Navarra, S.A.

- "004ko alogerako etxebizitzaren poltsa kudeatzeko enkargua. Zenbatekoa: 148.101 euro, BEZetik salbuetsita.

Enkargua 2004ko uztailaren 5ean onetsi zen, urte hartako urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

VINSAk irabazi-asmorik gabeko elkarte batekin zuzenean kontratatu zuen alogera-etxebizitzaren poltsaren kudeaketa. Kontratazio horrek enkargatutako lanen ehuneko 50 gainditzen du.

Enkargurako onetsitako gastuarengatik Nafarroako Gobernuari aurkezturiko fakturazioan ez da zehazten zer kontzeptu sartzan diren enkargatutako jarduketetan, eta haiek gauzatzearen egiazko kostua ere ez da justifikatzen.

- Ingurumen Departamentuari atxikitako ondare higiezinaren fakturazio-kudeaketaren ondoriozko kredituen dirubilketa egiteko enkargua. Zenbatekoa: 181.715 euro gehi BEZa.

2003an enkargatutako lan horren gauzatzea 2004ko ekitaldirako luzatzea, bai eta 172.414 euro gehi BEZeko gastu bat onestea ere, 2004ko ekainean onetsi zituen Nafarroako Gobernuak, urte haren lehen hiruhilekoari zegokion fakturazioare-

kin batera. Enkargurako eginiko gastuaren eta baimendutako gastuaren arteko aldea, 9.302 euro gehi BEZa, 2005eko ekitaldiari egotzi zion Nafarroako Gobernuak.

VINSAk Nafarroako Gobernuari eginiko fakturazioa gauzatu da enkargua arautzen duten administrazio-klausulen orrietan ezarritakoari jarraituz, eta fakturazio hori justifikatuta dago enpresa publikoak hiruhileko bakoitzean eginiko dirubilketa-txostenetan, zeinak Nafarroako Gobernuari bidali baitzaizkio, faturekin batera.

VI.4 NAFARROAKO GOBERNUTIK JASOTAKO TRANSFERENTZIAK

Enpresa publikoek 2004an Gobernutik jasotako eta Comptos Ganberak berrikusitako transferentzien ondoriozko dirusarrerai buruz ateratako ondorioak hauexek dira:

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra S.A.

- Enpresa-ekimenak sustatzeko jardueretarako dirulaguntza. Zenbatekoa: 300.506 euro.

Dirulaguntza hori araututa dago 2000n CEIN eta Nafarroako Gobernuaren artean izenpeturiko lankidetzaren hitzarmen batean, eta dirulaguntzak duen xedea da enpresa-sustapeneko ekintzak finantzatzea. CEINek, 2001ez geroztik, urteroko kopuru bera, 300.506 euro, jasotzen du adierazitako ekintzak finantzatzeko.

CEINek Nafarroako Gobernuari aurkezturiko justifikazioan ez da zehaztu egiazko kostua, ez eta diruz laguntzekoak diren jarduketan urteroko proposamenen aintzat hartutako enpresa-sustapeneko jardueren ondoriozko dirusarrerak ere.

CEINek aurkeztutako justifikazioak aintzat hartzen du enpresak 2004an zehar izandako jarduerak guztia. Dirulaguntza kalkulatzeko erreferentzia da enpresak izan dituen guztizko gastu eta dirusarreen arteko aldea; betiere, gastu eta dirusarrena horiek ez baldin bazaizkie proiektuei egotzi. Alde hori, 2004an, 288.298 eurokoa izan zen, kalkuluen arabera. Jasotako dirulaguntzaren gainerakoa, 12.208 euro, justifikatzen da CEINek 2004an eginiko ibilgetu-inbertsioekin.

- IKT-Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia enpresetan ezartzeko dirulaguntza. Zenbatekoa: 742.022 euro.

IKT-Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia enpresetan sarrarazteko jardueraren finantzaketa jasota dago 2000n CEIN eta Nafarroako Gobernuaren artean eginiko lankidetzaren hitzar-

menean, eta berariaz araututa dago bi entitate horiek 2004ko abenduan sinaturiko hitzarmenean.

Gobernuaren dirulaguntza, aurreikusitako 750.000 euro, ematen da aipaturiko 2004ko berariazko lankidetzeta-hitzarmenean ezarritako baldintzetan. CEINek behar bezala justifikatu ditu egiazki eginiko gastuak.

CEIN enpresak gastu gisa aintzat hartu du jasandako BEZaren ehuneko 63. Ehuneko hori baxuagoa da zegokiona baino, ehuneko 70, jasandako BEZ ez-kengarriaren kontzeptukoa, hainbapen-erregela aplikatzearen ondorioz.

- Berariazko enplegu-programetarako dirulaguntza. Zenbatekoa: 313.576 euro.

Dirulaguntza horrek, zeina Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta CEIN enpresak sinaturiko lankidetzeta-hitzarmenean araututa baitago, enplegu-sustapenerako hiru proiektu finantzatzen ditu.

Finantzatutako proiektuei dagozkien funtzionamendu-eta jarduketa-oroitidazkiak aurkeztu ditu CEINek.

Espedientea likidatu eta amaitzen duen ebazpena ez da inon ageri. Aipaturiko hitzarmenean xedatzen denez, ebazpen hori Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman behar du, enpresa publikoak aurkeztutako dirusarrera- eta gastu-frogagiriak egiaztatu ondoren.

Berrikusitako enplegu-sustapeneko hiru proiektuetako baten kasuan egiaztatu dugunez, CEINek Nafarroako Gobernuari aurkezturiko justifikazioan ez dira sartu CEINek beste entitate batzuetatik programaren finantzaketarako –hitzarmenean xedatzen denez– jaso dituen ekarpenak, eta beraz, dirulaguntza kalkulatzeari dagokionez horiek ez dira deskontatu.

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A.

CNAIk 2004ko ekitaldian 263.000 euroko transferentzia bat jaso du Nafarroako Gobernutik. Transferentzia hori araututa dago Gobernuak eta enpresa publikoak 2004an sinatu zuten hitzarmen batean, eta helburu gisa dauka zentro horren funtzionamendu-gastuak finantzatzea, bai eta hizkuntza-irakaskuntzarekin zerikusia duten jarduerak eta programak ere.

CNAIk lauhileroko txostenak aurkeztu ditu, eta haietan agertzen ditu dagokioen epean eginiko gastuak, eta zerrendatuta agertzen dira ordaintzeke dauden fakturak, eginiko ordainketak eta diruz lagundutako jarduera eta programengatik lortutako dirusarrerak.

Nafarroako Gobernuari ez zaizkio bidaltzen, eta berak ere ez ditu eskatzen, eginiko gastuak frogatzen dituzten fakturak eta agiriak, eta transferentziaren azken ordainketan ez da erregularizaziorik egiten CNAIk gauzatutako ekintzen egiazko kostua zehazteko, hitzarmen arau-emailean xedatzen den bezala.

Ciudad del Transporte de Pamplona S.A.

Nafarroako Gobernutik 2004an jasotako transferentzia, 367.600 euro, erabiltzen da enpresa publikoaren funtzionamendu-gastuak finantzatzeko.

Zenbatekoa zehazteko, aintzat hartzen dira gastu eta dirusarrerei buruz enpresa publikoak egiten dituen aurreikuspenak, aurreko urteko urri- an Ekonomia eta Ogasun Departamentura bidalitaokak.

Gestión Ambiental Viveros y repoblaciones, S.A.

Enpresa publiko honek Nafarroako Gobernutik 2004an jasotako transferentziak 360.848 eurokoak izan dira, behar bezala justifikatuta daude eta egoki erabili dira haiek ematean ezarrita zeukaten xederako.

Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.

ICANek 2004an honako transferentzia hauek jaso ditu Nafarroako Gobernutik:

1.047.970 euro, funtzionamendu-gastuetarako. Zenbateko hori ezarri zen ICANek 2004rako onetsitako aurrekontua aintzat hartuta, eta 52.000 euro gehitu zitzaizkion, sozietate publikoaren defizita estaltzeko.

43.445 euro, inbertsio-gastuetarako. Dirulaguntza horri dagokionez, egiaztatu ahal izan da ibilgetuko elementuen finantzaketarako aplikatu dela, eta eginiko inbertsioak fakturen bitartez frogatu direla. Finantzatutako inbertsioen egiaztapen-akta badago, Nafarroako Gobernuaren eta ICANen artean sinaturikoa.

Instituto Técnico de Gestión Agrícola, S.A.

Nafarroako Gobernuak 2004. urtean zehar ITG Agrícola eginiko transferentziek 2.272.327 euro egiten dute. Zenbateko horretatik, 1.947.211 euro dira enpresa publikoaren funtzionamendu-gastuak finantzatzeko. Transferentzia hori ezarri zen ITG Agrícola onetsitako aurrekontuen arabera, eta 2004an haren zenbatekoari 48.000 euro gehitu zitzaizkion, enpresaren defizita estaltzeko.

ITG Agrícola jasotako gainerako dirulaguntzei dagokienez, egiaztatu dugu aplikatu direla haiek

ematean ezarri zitzaien helbururako, eta enpresa publikoak frogatu egin dituela haien finantzatzen dituzten gastuak, hala arruntak nola inbertsiokoak.

Instituto Técnico de Gestión Ganadero, S.A.

Nafarroako Gobernuak 2004. urtean zehar enpresa honi eginiko transferentziek 2.614.172 euro egiten dute.

Zenbateko horretatik, 2.351.112 euro dagozkie sozietate publikoaren funtzionamendu-gastuak finantzatzeko transferentziari.

ITG Ganaderok hasieran aurrekontu defizitario bat onetsi zuen, transferentzien bidezko 1.998.080 euroko dirusarrera bat aintzat hartuz. Geroago, administrazio kontseiluak aurrekontu orekatu bat onetsi zuen, eta horretarako, aurreikusitako ekarpena 2.351.112 euroraino gehitu zuen. Horixe da, hain zuzen ere, ITG Ganaderok azkenean jaso zuen zenbatekoa.

Enpresa publikoek Ekonomia Departamentura igorri beharreko informazioa arautzen duen 2004ko apirilko Nafarroako Gobernuaren erabakian ezartzen den betebeharra da, besteak beste, sozietate publikoek Ekonomia eta Ogasun Departamentura uneko ekitaldirako aurrekontu orekatua bidaliko dutela, administrazio kontseiluak onetsia.

Navarra de Servicios, S.A.

1	Sare-elektronikaren eguneratzea Hezkuntza Departamentuan.	30.929	27.560	Askotarikoak
1	Kableatua Tafalla, Erriberri, Azagra eta ETI ikastetxe publikoetan	131.628	95.406	varios
1	Kableatua Zarrakaztelu, Mendabia eta Doneztebeko ikastetxe publikoetan	109.064	86.256	Askotarikoak
1	Kableatua Noain, Mutiloa eta Leitzako ikastetxe publikoetan	109.325	76.811	Askotarikoak
1	Sare kudeaketa eta gainbegiraketako sistema bat ezartzea	103.448	82.315	SATEC
1	Azkoiengo eraldaketa-zentroan etxola handitzea	105.642	90.229	IRUTEL
1	Uharte Arakilgo eraldaketa-zentroan etxola handitzea	111.000	95.293	IRUTEL
1	Eraldaketa-zentroak uhin-xurgatzaile trifasikoz hornitzea eta haiek instalatzea	63.506	45.283	ARALAR
1	Zenbait telekomunikazio-zentrotan aire girotua instalatzea	15.827	11.510	ARALAR
0	SOS kableatua eta zentro periferikoak luzatzea	33.924	31.082	PANDATEL
1	Zenbait telekomunikazio-zentrotan trifasikorako egokitzapena egitea.	37.954	29.632	SINKAL
1	Beriain, Lakuntza, Viana eta Villatuertako kontsultategietako kableatuak	22.106	17.421	Askotarikoak
1	Cortes, Fustiñana, Ribaforada, Ablitas eta Murchanteko kontsultategietako kableatua.	15.626	12.627	Askotarikoak
1	Kableatu egituratua Iruñeko Sanitaria BHIIn	92.346	42.590	ANGOFer
1	Kableatua Iruñeko liburutegian (Sanduzelai)	12.535	2.239	INGERED
0	SOS larrialdi sistemen erreproduktzio-plataforma ezartzea	36.638	29.742	GDI
1	Oronozko berrigorgailuan BT eraberritze elektrikoak egitea	35.979	22.245	Askotarikoak
1	64 FO kablea instalatzea Backbone eta Gizarte Ongizatearen nodoen artean	55.076	34.395	IRUTEL
1	1. faseko ospitale-inguruneke sare informatikoa	101.866	54.992	TECHDATA
1	Oibar, Irunberri, Elizondo, Arizkun, Irurita, Agoitz eta Los Arcoseko kontsultategietako kableatua	33.617	28.377	Askotarikoak
1	Martzellako Marqués de Villena bigarren hezkuntzako institutuaren zati handituari dagokion kableatua.	21.420	7.269	RMA
1	012-Infolocal zerbitzuko plataforma zentrala handitzea, inst. hipath V5.1	73.155	59.600	CONATEL
1	Iruñeko Justizia Jauregiko kableatua eta lekualdatzea	57.321	34.684	GDI
1	Sare korporatiboko eraztun nagusiko bideraketa aldatzea	96.883	83.072	GETRONICS
1	Solchaga anbulatorioaren eta Jauregiaren artean dagoen sarea birmoldatzea	46.854	32.037	ELECTROMUR
1	2. eta 3. faseetako ospitale-inguruneke sare informatikoa	154.803	139.657	TECHDATA
1	Tuterako Irakasleei Laguntzeko Zentroko kableatua	19.579	10.004	ELECTROMUR
1	Sare-ekipoak eguneratzea ospitale-inguruan.	105.194	77.306	TECHDATA
1	NGOlaren bulego zentraletan sare-birmoldaketa elektronikoa egitea	13.633	11.231	ARYAN
1	HVC hari gabeko sarea instalatzea (Urologia) eta Tuterako Ospitalea (Barne-medikuntza)	18.010		Askotarikoak
1	Grabazio-sistema bat ezartzea Justiziako judizio-aretoetarako	381.582		Askotarikoak
1	Bi zentral digital berri ezartzea 012 handitzeko	51.334	49.583	CONATEL
1	Telebista-zerbitzua. 2005. urtea	306.703		SINKAL
1	Sare korporatiboaren kudeaketa, 2005. urtea	597.205		Askotarikoak
	OPNATEL enpresari eginiko enkarguak, guztira	5.249.644	3.054.809	

Departamentua	Enkarguaren xedea	Enkarguaren zenbatekoa	Lankidetzan eginikoaren zenbatekoa	Enpresa laguntzailea
RIEGOS DE NAVARRA				
7	Canal de Navarra S.1 Oinarriak	14.829		
7	Canal de Navarra S.1 Oinarriak	28.424		
7	Canal de Navarra S.1.- Kartografia	271.616		
7	Canal de Navarra S.2.- Oinarriak	102.226		
7	Canal de Navarra S.2.- Kartografia	121.791		
7	Villafranca-akordioa	49.994		
7	S.Adrián (Monte y Planilla)	14.976		
7	Ablitas (Saso Pedriz)	13.627		
7	Oibar (El Saso)	128.733	83.929	Riegos Alf. Mtnz SL Aragonesa de Servic. Agrarios, SA
7	Valdega (handitzea)	457.265	348.276	Maquinaria y riegos Hnos. Ruiz
7	Funes (Raso eta Suertes,	793.539	515.507	Regadío de Javier enpresen aldi baterako batasuna
7	Xabier (Eraldaketa)	435.640	282.094	
7	Mélida (modernizazioa)	7.031.588	4.360.097	AZYSA construcciones
7	Zenbait landareztatze-proiektu	152.077	88.539	Ibersilva Servicios SAU
	Riegos de Navarra enpresari eginiko enkarguak, guztira	9.616.324	5.678.442	
SODENA				
8	Nafarroako Enpresa Nazioartera Ateratzeko 2004ko Planeko ekintzak gauzatzea	62.424	7.402	CEINSA
Naf. Gov.	"Navarra....!" erakusketaren planifikazioa eta antolaketa	3.000.000	3.000.000	ARTE VIVA EUROPA FUNDAZ.
	SODENA enpresari eginiko enkarguak, guztira	3.062.424	3.007.402	
TRABAJOS CATASTRALES				
7	Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikorako Sistema-NELIGSen ezarpena garatzea	1.226.923		
6	Noain-Esa E1 kartografia	15.061	972	Disgraf
			6.636	Cartográfica sl
			278	Máximo Ripa
7	Leringo lurzoru-mapa	10.222		
1	Kontratisten erregistro ofiziala	79.146		
6	Iruñerriko 1/500 kartografiaren eguneratzea	33.875	1.380	Máximo Ripa
			841	Rgional Deodata
			2.340	TCA SA
6	Ortofotoa	71.931		
6	Ortoak argitaratzea	58.699		
6	Ortoak argitaratzea	46.648		
7	2003ko abeltzaintza-inkestak	28.501		
7	Garesko lurzoruen mapa	43.673		
6	Plano kartografikoen artxiboa digitalizatzea	84.267		
7	Laguntza teknikoa, Abere Ekoizpenaren Atala	9.397		
7	Laguntza teknikoa, ikuskapenak, 2004	140.431	541	Geomendi
7	Laguntza teknikoa, Erregulazio eta Esku-hartze Atala, 2004	64.687		
7	Laguntza teknikoa, errentetarako laguntzak, 2004	300.427		
7	Saigosko tituluak lortzea	1.916		
7	Faltzesko tituluak	38.858		
7	Cárcarko tituluak	32.271		
7	Nabaskozeko tituluak	22.141		
7	Genbeko tituluak-II	2.761		
7	Larragako tituluak	71.956		
7	Lezaunqo tituluak	6.865		

Departa- mentua	Enkarguaren xedea	Enkarguaren zenbatekoa	Lankidetzan eginikoaren zenbatekoa	Enpresa laguntzailea
7	Andosillako tituluak	54.186		
7	Artaizko ingurumen-eraginari buruzko azterlana	9.008		
7	Azeloko behin-behineko akordioa	18.437		
7	Azeloko behin betiko akordioa	10.787		
7	Torralba del Río ko behin betiko akordioa	13.400		
7	Olagueko behin-behineko akordioa	10.352		
7	Olagueko behin betiko akordioa	7.133		
7	Olagueko obra-proiektua	28.115		
7	Zenboraingo finken zuinketa	3.778	1.340	Goemendi, SL
7	Leozko behin betiko oinarriak	53.661		
7	Ustaizko ingurumen-eraginari buruzko azterlana	30.269		
6	Zenbait lan	583	270	Goemendi, SL
7	Herrilur-erreklamazioak artatzea	45.957		
7	Jasotako eta ordaindutako prezioak eta inkestak	120.233		
3	Abelbideen ikuskapenerako laguntza teknikoa	52.152		
7	Mahastia birmoldatzeko Geoga laguntzen kudeaketa	101.981		
7	Labore eta aprobetxamenduen maparen mantentzea	38.617		
9	Nafarroako kirolguneen inbentarioa	22.124		
3	Ingurumenari buruzko informazio-sistema	321.552	13.334	NUP
1	Ondarea, hitzarmena	25.655		
4	Nafarroako toponimiaren datu-basea araztu eta eguneratzea	22.414	8.219	Elea 21, SL
1	Laguntza teknikoa, estatistika institutua	29.099		
1	Nafarroako kale-mantentzea, 2004	59.389		
1	Sitna kontsultatu, kudeatu eta aztertze lanabesak, 2004	86.207		
1	Sitna biltegia 2004an zehar mantentzea	86.207		
1	Sitnaren web gunea 2004an mantentzea	81.897		
1	Sitnaren 3D weba 2004an mantentzea	41.379		
3	Siun 2004	292.198	10.500	Spsa
7	Nekazaritza-estatistika, 2004	118.598	6.261	Agroseguros,SA
			5.751	Digraf
7	2004ko abeltzaintza-inkestak	24.483		
7	Laguntza teknikoa, estazionaltasun-kontrola eta zona ahulak	87.051		
7	NPB aitortpena soroan kontrolatzea, 2004ko kanpaina	193.755		
7	Laguntza teknikoa, Landareen Ekoizpen eta Osasun Atala	38.776		
7	Batasunaren Intereseko Ultzamako Lekuaren lurzorueskema	13.969		
7	Batasunaren Intereseko Orbaibarko Lekuaren lurzorueskema	13.969		
1	Ondare Zerbitzuaren modernizazio eta optimizaziorako laguntza teknikoa.	21.552		
7	Hoyanda-Casetas, Cárcar	10.465		
1	SAP ing- sist. inf. zerbitz. eragiketa eta maila	3.812.167	12.320	Azeria Tec Inform. SA
			1.885.482	Informática Corte Inglés
7	Orbaibarreko BILaren larre-balorazioa	8.578	5.591	Vicente Ferrer Lores
7	Ultzamako larre-balorazioa	8.226	5.306	Vicente Ferrer Lores
6	2001eko kanpainako ortofotoak	109.095		
1	2003ko errenta garatzeko eta aplikazioak hobetzeko laguntza teknikoa	1.659.460	1.138.870	Azeria Tec. Información,SA
			456.320	Computad. Navarra, SA
6	Sitna bilteg. errepide-sarea gehitzea	4.347		
7	Tomate tranf.-ren kontrola eta bazkaren deshid. 2004	49.569		
7	Artaxoa: interp. eta oroitidazkia MS.	12.360		
7	Larraza: interp. eta oroitidazkia (MS).	20.291		

Departamentua	Enkarguaren xedea	Enkarguaren zenbatekoa	Lankidetzan eginikoaren zenbatekoa	Enpresa laguntzaile
7	Mendigorría: interp. eta oroitidazkia (MS).	20.815		
Suhiltzaile-partzuergoa	Nafarroako suhiltzaileak Sitna lanabesez hornitzea.	19.110		
0	Arrisku-mapen kartografia	2.155		
1	Sitna-lanabesen hornidura	12.016		
7	Lurzoru-bankuaren aplik. lotura, inf. kartograf.	4.483		
7	Landare-serieen aplikazioa garatzea	14.741		
Vianako Printzea	Donejakue Bideari buruzko 3d hegaldiaren dvd-a webean argitaratzea	14.822		
6	Iruñerriaren kartografia 3d-tan, 2004	64.112	1.340	Regi. Geodata Air, S
1	Kartografia-dendako informazioa kargatu eta eskuratzea	16.409		
1	Larrialdiei erantzuteko zerbitzuaren maila kudeatzea	132.582	116.437	microsoft Iberica SF
1	Nafarroako higiezin-merkatuaren azterlana	18.134	17.680	Tasac. y consultoría, S
3	Finka-desjabetzeetarako laguntza teknikoa, 15. sorta	193.022	188.316	Tasac. y consultoría, S
1	NAOko aplikazioa	86.207		
7	Nekazaritza-ustategien analisi funtzionala	36.386		
3	2004ko kanpainako ortofotoak	42.458		
6	Informazio geografikoko sisteman txertatzeko mapak, 2004ko kanpaina	128.586		
6	Kartografia-eguneratzea, 2004ko kanpaina	30.455		
6	2004ko kanpainako mapa topografikoa argitaratzea	6.543		
6	2004ko kanpainako ortofotoak	129.233		
1	Nafarroako Gobernuko espediente-kudeaketako lanabesen ezarpen pilotua	210.345		
6	Nafarroako mapa topografikorako hegaldia	19.446	2.885	Goemendi, S
			30.432	Reg. Geodata Air, S
1	Giza baliabideetako SAPen mantentze ebolutiboa	86.206	81.897	Informática Corte Inglés
7	2004ko iraileko uholdeen kalteak tasatzea	51.724		
7	Ablitaseko lurzoru-mapa, igeltsuak	19.217		
7	Nafarroako landare-diagrama prestatzeko lanak	23.025	16.781	Javier Peralta de André
7	Zenbait lurzati-berrantolamendu	69.746		
7	Ingurumen-eraginari buruzko azterlan osagarriak, Leotz	6.566	899	Alfonso Llamas
1	Zenbait daturen tratamendua eta grabazioa	2.434.953	59.332	Lourdes Gambor
			106.915	Azertia Tec Inf.. S
			5.035	Úrmeneta Sanche
			28.282	Tasac. y consult., S
1	Zenbait daturen tratamendua eta grabazioa zabaltzea	552.866		
7	Zenbait finkaren zuinketarako laguntza teknikoa, zenbait zonatan	27.543	451	Goemendi, S
7	Izarbeibarko lurzoruen mapa amaitu eta interp.	73.354		
7	Abere produk. zenbait lan	367.028		
	TRACASA enpresari eginiko enkarguak, guztira	15.178.423	4.219.232	
VIVIENDAS DE NAVARRA				
1	Ondare-kobrantzaren kudeaketa	181.716		
3	Eroslehentasuna eta atzera eskuratzea	50.861		
3	Eskatzaileen datuak	100.000		
3	Etxebizitza Planaren prestaketa	70.517	55.000	Ik
3	Alokairurako poltsaren mantentzea	148.101	92.998	Provivienc
	VINSA enpresari eginiko enkarguak, guztira	551.195	147.998	
ENKARGUAK, GUZTIRA		57.417.358		

0.- Lehendakaritza, Justizia eta Barnea

1.- Ekonomia eta Ogasuna

2.- Toki administrazioa

3.- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza

4.- Hezkuntza

6.- Herri lan, Garraio eta Komunikazioak

7.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura

8.- Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lana

9.- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria

A.- Kultura. Vianako Printzea Erakundea

OHARRAK, EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKOAK

Nafarroako Comptos Ganberaren "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko enpresa publikoak: langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak, 2004ko ekitaldia" izenburupeko behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkeztutako oharrak.

Aipatu txostena dela-eta antzeman ditugun oharrak igortzen dizkizutut, kudeaketa publikoan gardentasuna eta efikazia lortzeko asmoarekin eta interesarekin, horiek izan baitira beti Nafarroako Gobernu honen ezaugarriak, eta buru zaren erakundearekin lankidetzan aritzeko desioarekin.

1. Txostenean adierazten da Europako arauak ez direla bete, esaten baita arau horien arabera sorturiko sozietate publikoak Kontratuari buruzko Legearen aginduen menpe jarri behar direla, interes orokorraren beharrezan betetzeko; hain zuzen ere, enpresen ahalmenari, publizitateari, 5.923.624 euro edo gehiagoko lizitazio prozedurei eta obra kontratuen adjudikazio moduei, eta 236.945 euro edo gehiagoko hornidurarako, laguntzarako edo zerbitzu publikoen kudeaketarako dagokienez. Zehazki, esaten da halakoak ez direla argitaratu Europako Erkidegoko Aldizkari Ofizialean. Horri buruz, esan behar dugu txostenean aztertzen den aldian, 2004. urtean hain zuzen, ez kontratazioaren arloko Nafarroako arauak, ez estatukoek ez zutela bete behar hori jasotzen, zeren eta ulertzen baitzen halako bete beharra ezartzen zuen Europako zuzentaraua ez zitzaiela aplikatu behar zuzenbide pribatuaren menpeko entitateei, eta bai, ordea, "erakunde publikoei".

Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 2005eko urtarrilaren 13ko epaiaren ondorioz (C-84/03 gaia), ordea, zigorra ezarri zitzaion Espainiako Erreinuari, aipaturiko argudioak aintzat hartu gabe. Hain zuzen ere epai horretatik aurrera bai eskatu daiteke aipaturiko kontratuak Europako Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Aipatu epaiaren ondoren, Nafarroako Gobernuak, Estatuko arauak aldatu aurretik ere, foru legeak bete behar berrietara egokitu zituen, Kontratuari buruzko Foru Lege proiektua onetsiz. Parlamentuak proiektua izapidetu eta ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea onetsi zuen. Horixe da gaur egun kontratazioaren arloan indarra duen legea, eta lege horretara ekarri zen Europako zuzentarauaren edukia Europako Erkidegoaren arloko publizitateari dagokionez (188.5 artikulua, Kontratuari buruzko 6/2006 Foru Legeko 83. artikuluaekin eta hurrengoekin lotuta dagoena).

Azken batean, ondoriozta daiteke 2004. urtean kontratazioaren arloan jarraitutako prozedurek zorrotzasun osoz bete zutela legea, bai foru lurraldean bai estatuan indarra zuten irizpideen arabera.

Horri dagokionez, bereziki argigarriak dira Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. entitateak eginiko oharrak, iparraldeko hondakin uren garraio eta tratamendu instalazioen mantentzerako kontratuari buruz behin-behineko txosteneko VI.2 atalean, 25. orrialdean, adierazitakoak direla eta; hain zuzen ere, ohar horiek txosten hori zehaztu egiten dute aipatu txostena, eta horien arabera jo behar da Europako Erkidegoko legedian publizitatea dela-eta ezarritako bete beharra ez zitzaiola 2004. urtean aipatu kontratuari aplikatu behar, zeren eta bete beharra barneko antolamendu juridikora ekarri gabe baitzegoen.

2. Langileen hautaketari dagokionez, behin-behineko txostenean esaten da enpresa talde batek prozedura batzuk aplikatzen dituela bermatzeko nahierakeriaren debekuari, berdintasunari, merituari eta gaitasunari buruzko konstituzio-printzipioak modu egokian betetzen direla, baina, halere, inguruabar horiek ez direla modu egokian frogatu. Gomendatzen da arau-esparru bat ezartzea, enpresa publikoetan langileak hautatzeko prozedura objektiboa arautuko duena eta barne prozedurak arautu eta ezartzea prozeduraren objektibotasuna bermatzeko.

Adierazi beharra dago, arloan aplikatzekoa den lege araurik ez dagoenez, behin behineko txostenaren arabera hautaketa-prozesuan objektibotasuna behar adina bermatzen ez duten sozietate publiko batzuek bitarteko tekniko moderno batzuk erabiltzen dituztela (intranet, web orria eta abar) beren enplegu eskaintzei publizitatea emateko; aurrerago, izangaien gaitasuna baloratuko da zenbait fasetan zehar, eta hori dela-eta esan daiteke kontratazio horiek hautaturiko pertsonaren gaitasunaren arabera egiten direla eta beti lanpostuaren beharretarako egokiena den profila kontuan hartuz.

Gure iritziz, interesgarria da aintzat hartzea behin-behineko txostena dela-eta Trabajos Catastrales, S.A. entitateak ematen dituen argibideak; hain zuzen ere, haietan zehaztasun handiz azaltzen da langilean hautatzeko prozesua zein den, bai eta arlo horretan jarraitzen den kalitate prozedura zein den. Izan ere, prozedura horren helburua da segurtatzea kasuan kasuko lanpostuari hobeki egokitzen zaizkion pertsonak sartuko direla.

3. Nafarroako Gobernuak bere entitate instrumentalei eginiko enkarguei dagokienez, behin-behineko txostenean gomendatzen da arloa arau-

tzeko foru dekretu berri bat onets dadila, ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretua indargabetuta gelditu dela kontuan hartuta.

Ohartarazi behar da ezen aurtengo otsailaren 12ko bilkuran Nafarroako Gobernuak aintzat hartu duela entitate instrumentalei eginiko enkarguak arautzen dituen foru dekretu proiektua, hura Nafarroako Kontseilura igortzeari dagokionez, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 8. artikulua garatuz.

Aipatu beharrekoa da proiektu horren edukia irtenbidea ematen diela enkarguen arloari buruz txosten proiektuak mahaigaineratzen dituen galetako batzuei.

Horrela, enkargua jaso duen entitateak aldeztatik aurrekontu bat onetsi beharra ezartzen da; aurrekontu horrek finkatuko du kasuan kasuko prestazioaren zenbatekoa, hartan ezarritako prezioen arabera.

Era berean, xedatzen da enkargua behar bezala betetzeko ikuskerak entitate enkargu-egileari dagokiola.

Bereziki garrantzitsua da enkargua egiteko entitate instrumentalek beharrezkoa izatea hirugarrenek prestazioak gauzatzea; kasu horretan, haien lizitazioa eta gauzatzea Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aginduen arabera izan da.

Halaber, aurreikusitako jardunbidea da aurreitazko espediente baten instrukzioa egitea beharrezkoa izan dela enkargu bat egiteko, eta espediente horretan sartu beharreko izapideak izan direla teknikoak, juridikoak, aurrekontu-arlokoak, kontrolekoak eta gastu-onespenekoak, kontratu administratiboetarako ezarritakoak bezalakoak.

Azkenik, ohartarazi beharrekoa da ezen, hirugarrenek enkarguen berri izatea bermatze aldera, errespetatu beharrekoak izan direla ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen kontratu-esleipenen publikitateari buruz jasotako xedapenak.

4. Behin-behineko txostenaren aztergaiarekin loturik Nafarroako Gobernuak gauzaturiko legegintza-ekimenak

Txostenaren aztergaia da enpresa publikoek 2004an gauzaturiko jardueraren fiskalizazioa.

Aipatu behar da Nafarroako Gobernuak, garai horretatik gaur egun arte, eta bere ekimenez, arau-multzo bat sustatu edo onetsi duela, eta arau horiek, kasurik gehienetan, Comptos Ganberak egiten dituen gomendioekin bat datoze.

1.- Horrela, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea sustatu da, zeinak kontratu-prozedurak Europako Batasuneko araudiari egokitzen baitizkio, eta beste batzuk ere ezartzen ditu, hala nola kanpo-laguntzaileen esleipena, haiei enkarguan emandako lanak gauzatzeko.

2.- Enkarguak arautzeko Foru Dekretu proiektu berri bat prestatu da, Nafarroako Gobernuak aintzat hartua eta Nafarroako Kontseilura igorria, hark behar den txostena egin dezan. Horri buruzko xehetasunak gogoan aipatu ditugu.

Nafarroako ondarea arautzeko Foru Lege proiektu berri bat prestatu da, gaur egungo enpresa-sektore publikoa hobeki antolatzen duena.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektu berri bat prestatu da, sozietate-jardueraren alderdi batzuk arautzen dituena, hala nola finantza-erabakiak edo diruz laguntzeko moduko gastuak, besteak beste.

Iruñean, 2007ko otsailaren 22an

Ekonomia eta Ogasun Kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

ERANTZUNA, EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO OHARREI EMANDAKOAK.

Nafarroako Gobernuaren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Iribarren Fentanes jaunak aurkeztutako oharra jaso ditugu, zeinetan bildu eta laburtzen baitira "Nafarroako Foru Komunitateko administratioko enpresa publikoak: langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak, 2004ko ekitaldia" izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostenari enpresa publikoek egindakoak, eta ohar horiek osoki txertatu ditugu fiskalizazio-txostenean.

Dena den, horiei buruz honako zehaztapen eta iruzkinak egin nahi ditugu:

1.- Lehenbiziko alegazioari dagokionez, zeina interes orokorreko beharrezko asetzeko asmoz eraturiko sozietate publikoei 2004. urtean aplikatzeko zitzaien araubide juridikoari buruzkoa baita, Comptos Ganberak bere iritzia berresten du; alegia, jadanik ekitaldi horretan galdagarria zitzaiola enpresa horien kontratazioari gaitasun, publikitate eta esleipen prozedura eta moduei buruzko arauak aplikatzea Europar Batasunaren araudiaren mugen gainetik egiten ziren obra, hornidura, laguntza eta zerbitzu kontratuak, eta muga horien azpitik aplikatu beharrekoak zirela publikitate, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun

printzipioak, egin beharreko eragiketaren izaera printzipio horiekin bateragarria zen guztietan.

Ildo horretatik, alegazio horretan aipaturiko epaia, Europako Erkidegoetako Auzitegiak 2005eko urtarrilaren 13an emandakoa, auzitegi horretatik ateratako ebazpen-zerrenda luze bateko beste ebazpen bat besterik ez da. Horien artetik aintzat har daiteke, hurbileko erreferentzia gisa, 2003ko maiatzaren 15eko epaia, zeinak Espainiako Erresuma kondenatzen baitu kontratu publikoen esleipenari buruzko europar araudia aplikatzera kapital publikoa osoki edo zatirik handienez daukaten merkataritza-sozietateei.

Epai garrantzitsu horrek ondorio gisa eragin zuen Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu batetina (APKLTB) aldatzea, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, neurri fiskal, administratibo eta ordena sozialekoei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bitartez. Hori dela-eta, puntu honetan Europako Erkidegoetako Auzitegiaren jurisprudentzia aplikatuz, merkataritza-sozietate publikoei ezartzen zaizkie lehen aipaturiko kontratu administratiboetarako APKLTB-an enpresen gaitasunari, publizitateari, prozedurei eta esleipen-moduei buruz ezarritako aginduak, kontratu horiek Europako mugak gainditu bezain laster.

Nahiz eta foru agindua, Estatukoa ez bezala, bere garaian puntu horretara egokitua ez izan, gure ustez, Europako araudia aplikatuz eta Europako Erkidegoetako Auzitegiak araudi horri buruz behin eta berriro egin duen interpretazioaren ondorioz, enpresa publikoen kontratazioari buruz adierazitako irizpideak aplikatzekoak ziren, 2004ko ekitaldian, Foru Komunitateari ere.

2.- Bi, hiru eta laugarren puntuetan eginiko oharrei dagokienez (langile-aukeraketari, Nafarroako Gobernuak bere ente instrumentalei eginiko enkarguei eta txostenaren aztergaiaren gainean Nafarroako Gobernuak gauzatu dituen legegintza-ekimenei buruzkoak), Comptos Ganberak berretsi egiten du puntu horiei buruz txostenak duen edukia, eta ederretsi egiten du enpresa publikoek eta Nafarroako Gobernuak legegintzako ekimen eta prozedurak ezarri eta aplikatzea, halakoak non, Comptos Ganberaren gomendioei jarraituz, Nafarroako enpresa-sektore publikoaren kudeaketa garden, efiziente eta eraginkorra ekarriko baitute.

Horrenbestez, alegazioak txostenari gehitu zaizkio eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko (horietako baterako euskaraz jakin behar da).

Lekualdatze lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeari

Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts (horietako baterako euskaraz jakin behar da) lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia 2007ko apirilaren 26an Lehendakariak honek harturiko erabakiaren bidez onetsi zen. Aipatu deialdiaren 4. oinarriko 4. idatz-zatian hauxe xedatzen da: "Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena eman du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da."

Aurreikusitako epea bukatuta, eskabiderik aurkeztu ez direnez, lekualdatze lehiaketa bete gabe

gelditzen dela deklaratu behar da. Hori dena ikusirik, Lehendakariak honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts (horietako baterako euskaraz jakin behar da) lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia bete gabe gelditu dela deklaratzeari. Deialdi hori Lehendakariak honen apirilaren 26ko erabakiaren bidez onetsi zen.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da.

Iruñean, 2007ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorreko Mahaiak, Batzorde Iraunkorrari entzun ondoren, 2007ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluko berriak, 1. idatz-zatian, foru parlamentariei aukeran emanen zaizkien ordainsari moduak ezartzen ditu; 2. idatz-zatian, berriz, ezartzen da Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ordainsari horien araubide juridikoa garatuko duela. Berritasuna denez parlamentarietako aukera izatea ordainsari finko eta aldizkakoa jasotzeko, lanaldi osoko araubidean nahiz araubide hori eduki gabe (15.1 artikuluko a) eta b) aukerak) –izan ere, bertaratzearen arabera dietak, c) aukera, foru parlamentariei ordaintzeko bide orokorra izan baita eta 1989ko maiatzaren 15eko Mahaiaren Erabakian araututa dago–, beharrezkoa da aukera horien araubide juridikoa onestea, Erregelamenduko 15.2 artikuluko aurrekusi bezala, eta onesten horretaz baliatzea foru parlamentarietako jaso ditzaketen ordainsarien aukera guztiak testu batean eta bakarrean arautzeko.

Horrenbestez, Erregelamenduko 15.2 artikuluko arekin bat, hona ERABAKIA:

1. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arau hau, ondoren datorrena, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua

1. artikulua. Xedapen orokorra.

Foru Parlamentarietako diru kopuru bat jasoko dute, bai eta laguntzak eta gastuen ordainak ere, beren eginkizuna eraginkortasunez eta duintasunez bete ahal izateko.

Diru kopuru hori jasotzeko hiru aukera daude, eta foru parlamentari bakoitzak ordainsari-mota horietako baten alde egin beharko du, parlamentari-agiria eskuratu eta ondoko hogeita eguneko epearen barruan. Eginiko aukera aldatu ahalko du hiruhileko bakoitzeko azken hamabost egun naturalan, salbu eta Parlamenturako hauteskundeak egiten diren urtean. Nolanahi ere, ezin izanen da bi aldiz baino gehiago aldatu legegintzaldi batean zehar.

Dirua jasotzeko aukera alda dadila eskatzeko, idazki bat bidali beharko da Kontu-hartzailetza eta Ekonomi Gaietako Zerbitzura, eta eskaerak indarra hartuko du aurkeztu ondoko hilabeteko lehenbiziko egunetik aurrera.

Salbuespen gisa, eta interesdunak arrazoiak azalduz eskaera egin ondoren, Mahaiak zilegi izanen du aldaketa onartzea gorago adierazitako mugei lotu gabe.

2. artikulua. Ordainsari-motak.

1. Aukera daitezkeen ordainsari-motak honakoak dira: a) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubidearekin. Aukera honetan, foru parlamentariei aplikatuko zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko goi karguentzat ezarritako bateraezintasun ekonomikoen araubidea eta arau honetan ezarritako baldintzak.

b) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubiderik gabekoa. Aukera honetan, foru parlamentariei aplikatuko zaizkie funtzionario publikoentzat ezarritako ordainsari-bateraezintasunen araubidea eta arau honetan ezarritako baldintzak.

c) Bertaratzearen arabera ordainsaria; alegia, deitzen zaie parlamentu-ekitaldietara bertaratzearen truke dieta bat jasotzea, arau honetan ezarritako baldintzetan.

Goiko a) eta b) letretan aipatutako ordainsariak bateraezintasunak dira edozein erretiro-pentsio publiko jasotzearekin. Halaber, hiru aukerak bateraezintasunak dira haien artean.

Foru parlamentariak ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute hurrengo legebiltzara eratu arte.

2. Foru parlamentariak hasiera batean eginiko aukera adieraziko beharko du Kontu-hartzailletza eta Ekonomi Gaien Zerbitzuari zuzendutako idazki baten bitartez, parlamentari-agiria eskuratu ondoko hogeitau egun baliodunen epean, eta aukera horrek indarra izanen du Legebiltzar berria eratzen den egunetik aurrera, salbu eta aukeraren jakinarazpena egun horren ondotik egiten denean; kasu horretan, indarra izanen du Parlamentuko Erregistroan aurkezten den egunetik aurrera.

Egin den aukera espresuki jakinarazten ez den bitartean, bertaratzearen arabera ordainsaria aplikatuko da, eta horixe bera ere aplikatuko zaie beren aukera jadanik aipaturiko epean adierazten ez duten foru parlamentariak.

3. artikulua. Zenbatekoa.

1. Aukera bakoitzari dagokion ordainsariaren zenbatekoa Nafarroako Parlamentuko Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eta kasuko aurrekontuen barrenean sartuko du. Ordainsari finkoei dagokienez, aipaturiko organoetako kideei dagozkienak bereiziko ditu.

2. Ordainsariak jaso ahal izateko, foru parlamentariak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Beren parlamentari-eskubideak osotasunean edukitzea.

b) Ohikoa den moduan joatea deituak direneko parlamentu-bilkuretara.

Adierazitako baldintzetakoren bat ez betetzeak berarekin ekarriko du ezarritako diru-kopurua etetea edo, kasua bada, galtzea.

Ordainsariaren eten edo galerarako prozedura izapidetuko da Mahaiak 1989ko maiatzaren 15eko erabakiz onetsitako parlamentu-taldearen ordainsariari buruzko arauetako 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

3. Foru parlamentariaren ordainsariak izaera publikoa daukate, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia aplikatuko zaie.

4. artikulua. Lanaldi osoko araubideko ordainsaria.

1. Lanaldi osoko araubideari lotzen zaizkion foru parlamentariak jardunaldi osoz ariko dira beren eginkizunak betetzen, eta hamalau ordainketatan banatutako urteroko ordainsaria jasoko dute; ordainketa horietako hamabi arruntak izanen dira, eta beste bi, bereziak.

Hilero ordainketa arrunt bat ordainduko zaie, eta ekainean eta abenduan, gainera, ordainketa berezia eskuratuko dute.

2. Foru parlamentariak ordainsarirako eskubidea izanen dute jabetza hartzen dutenetik hurrengo legebiltzara eraten den arte, salbu eta kargua uzten badute Parlamentuko Erregelamenduko 28. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. idatz-zatietan ezarritako arazoietakoren batengatik, edo bestelako ordainsari-mota bat aukeratzen duten arte, 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Ordainsari-mota hori aukeratzen duen foru parlamentaria ezin izanen da batera aritu, ezta ordezkio edo ahaldun baten bidez ere, beste edozein lanpostu, kargu, ordezkaritza, lanbide edo jardueratan, publiko zein pribatu izan, bere edo besteren kontura, eta, halaber, ez du beste ordainsaririk jasotzerik izanen administrazio publikoetako edo horiei lotutako edo horien menpeko entitateetako aurrekontuen kargura, ez eta zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik datorren beste inolako saririk ere.

Aurreko lerrokan xedatutakoak ez ditu artikuluko honetako 5., 6. eta 7. idatz-zatietan adierazitako salbuespenak galarazten.

4. Lanaldi osoko araubidean diharduten foru parlamentariak ezin dute izan, ez beraiek ezta ezkontidearekin edo haien menpeko seme-alabekin eta tutoretzapeko pertsonekin batera ere, ehuneko hamar edo gehiagoko partaidetzen titularitate, Estatu, foru edo toki sektore publikoarekin edozein eratako itun, hitzarmen edo kontratu duten enpresetan.

5. Lanaldi osoa daukaten foru parlamentariak zilegi izanen dute beraiei dagozkien bestelako kargu instituzionaletan edo beren parlamentari-izaerarengatik esleitu zaizkien karguetan aritzea. Kasu horietan, kargu horiek zein entitate edo erakundetakoak diren, kasuko entitate edo erakundeak bertaratzearengatik zehaztuta dauzkan kopuruk jaso ahalko dituzte, bai eta gastuengatik ordaintzen dizkieten kalte-ordainak ere.

Halaber, funtzionario publiko izanik eszedentzia bereziko edo zerbitzu berezietako egoeran dauden foru parlamentariak zilegi izanen dute haien jatorrizko administrazio publikoari buruzko legediak aitortzen dizkien ordainsari bateragarriak jasotzea.

6. Toki entitateetako hautetsiak diren foru parlamentariak lanaldi osoko araubidea hautatu ahalko dute baldin eta entitate haietan lanaldi osoaren edo partzialaren ondoriozko ordainsari finkorik jasotzen ez badute.

7. Lanaldi osoko araubidea bateragarria da jarduera pribatu hauekin, baldin eta horietan aritzeagatik foru parlamentariaren karguaren jarduna oztopatzen ez bada:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa.

b) Literatura, arte, zientzia edo teknika arloko produkzio edo sorkuntza lana eta horren ondoriozko argitalpenak, baita hizlari gisa biltzar, mintegi, lan-jardunaldi, hitzaldi edo lanbideko ikastaroetara tarteka joan eta haietan lankidetzan aritzea ere, baldin eta horiek ez badira enplegu harreman edo zerbitzu emate baten ondorio edo dituen eginbeharren betetze zorrotzari kalterik egiten ez badiote.

c) Irabazi asmorik gabeko kultur edo ongintza-entitateetan parte hartzea, baldin eta parte-hartze horren truke inongo ordainsari edo irabazirik jasotzen ez badute.

5. artikulua. Lanaldi osoko araubidea daukaten foru parlamentarien kargu-uzte ondoko dirua.

Legebiltzar berria eratu ondoren eta, beraz, ordainsariaren sortzapen-aldia amaituta dagoenean, lanaldi osoan aritutako foru parlamentariak hileko bati dagokion zenbatekoa jasoko dute karguan segitzekoak ez badira, eta eskubidea izanen dute karguan aritu diren urte bakoitzeko 45 eguneko ordainsariaren adinako diru-kopurua jasotzeko. Kopuru horri dagokionez, kontuan hartzen den gutxienezko urtebeteko epea da, eta gehienekoa, lau urte. Ordainsari hori ondoko baldintzen arabera izanen da:

a) Diru-kopuru horren zenbatekoa zehazteko, kargu-uztea gertatu den urteko ordainsari gordina hartuko da oinarri.

b) Prestazio ekonomiko hori hileroko hamabi ordainketa berdinetan ordainduko da, kargu-uztea gertatu eta hurrengo hiletik aurrera.

c) Prestazio hori jasotzea bateraezina da kopuru horren onuradunari berriro ere kargurako hautatua izanez gero legezkoekin jasotzearekin, bai eta sektore publikoan nahiz pribatuan lanpostu finko batean aritzeagatik eskuratzen direnekin.

Halaber, prestazio hori jasotzea bateraezina izanen da aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikoko pentsioekin, aldi bateko lan kontratuegatik lansariak jasotzearekin eta edozein jarduera profesional edo merkataritzakotik eskuratutako dirusarrerekin, baldin eta aipatutako lansariak eta dirusarrerak, urteko kopurua osorik harturik, handiagoak badira idatz-zati honetan ezarritako prestazio ekonomikoa baino. Eta txikiagoak badira,

dagoen aldea eskuratzeko eskubidea baizik ez du izanen.

Jasotako ordainsari edo dirusarrerak frogatze aldera, zertarako eta, kasua bada, Nafarroako Ogasun Publikoari dagozkiekeen diru kopuruak bihurtzeko, kontuan hartuko da estatutu honetan arautzen diren prestazioak jaso izana aipatzen duten interesdunaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenen edukia.

6. artikulua. Lanaldi osoko araubiderik gabeko ordainsariak.

1. Lanaldi osoko araubiderik gabeko aldizkako ordainsari finkoa aukeratzen duten foru parlamentariak urteko ordainsari bat jasoko dute, hamalau ordainketa eskuratuko dutena; horietako hamabi arruntak izanen dira eta bi bereziak.

Hilero ordainketa arrunt bat ordainduko zaie, eta ekainean eta abenduan, gainera, ordainketa berezia eskuratuko dute.

2. Foru parlamentariak ordainsarirako eskubidea izanen dute jabetza hartzen dutenetik hurrengo legebiltzarra eratzen den arte, salbu eta kargua uzten badute Parlamentuaren Erregelamenduko 28. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. artikuluetan ezarritako arazoietako batengatik, edo bestelako ordainsari modu bat aukeratzen duten arte, 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Ordainsari-mota hau aukeratzen duten foru parlamentariak ezin izanen dute karguan jardun eta aldi berean sektore publikoan beste kargu edo jarduera batean jardun, ez eta besteren kontura lanik egin edo administrazio publikoen edo haien menpeko edo haiekin loturiko entitateen aurrekontuen kargurako bestelako saririk jaso; salbuespena unibertsitateko irakaskuntza izanen da, irakasle elkartu gisa eta lanaldi partzialean.

Aurreko lerrokadan xedatutakoak ez ditu 4. artikuluko 5. idatz-zatian adierazitako salbuespenak galarazten.

4. Toki entitateetako hautetsiak diren foru parlamentariak artikuluko honetan araututako ordainsaria jasotzeko aukera izanen dute, betiere entitate horiengandik lanaldi osoko edo partzialeko araubidearengatik ordainsari finkorik jasotzen ez badute.

7. artikulua. Aurreikuspen soziala.

1. Aldizkako ordainsari finkoa jasotzen duten foru parlamentariak alta emanen zaie Gizarte Segurantzako araubide orokorrean, Gizarte Segurantzaren administrazioarekin izenpeturiko hitzarmen bereziari jarraituz, araubide horretan dauden langileen baldintza berdinetan, honako salbuespe-

nekin: langabeziaren kontingentziak eta Soldaten Bermerako Funtsa.

Gizarte Segurantzarentzako kasuko kotizazioen ordainketa Parlamentuko aurrekontuaren kargura eginen da.

2. Funtzionario publikoak izan eta zerbitzu berezietako egoerara aldatzen diren foru parlamentariak bi aukera izanen dituzte: edo, kasu bada, aplikatzeko zaien eskubide pasiboan araubideari eutsi eta jatorrizko administrazioan hartarako kotizatu eta dagozkien kuotak ordaindu, edo Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta eman.

3. Lanaldi osoko araubidean sartzen diren eta, beren lanbidearengatik, Gizarte Segurantzaz beselako aurreikuspen sozialeko sistema batekoak diren foru parlamentariak zilegi izanen dute sistema horretan segitzeko erabakia hartzea; kasu horretan, Parlamentuak kasuan kasuko mutualitate-kotizazioak ordainduko dizkie.

8. artikulua. Bertaratzearen araberako ordainsaria.

1. Bertaratzearen araberako ordainsari-motan, foru parlamentariak dieta bat jasoko du dei egin zaion parlamentu-ekitaldietara eta Mahaiak baimendutako ordezkari-ekitaldietara bertaratzeagatik.

Ordainsari horrek bi zenbateko izanen ditu: bata Iruñean eta 25 kilometroko inguruan bizilekua duten parlamentarien bertaratzei aplikatuko zaie; eta bestea bizilekua Iruñetik 25 kilometro baino urrutiago duten foru parlamentariak aplikatuko zaie.

2. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, foru parlamentarien dieten zenbatekoa finkatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako. Halaber, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14.2.b) artikuluan xedatuaren arabera, "gastueterako ordainsaritzat" hartuko den dieta bakoitzaren zenbatekoa ezarriko du; ordainsari hori zerga horretatik salbuetsirik egonen da.

3. Mahaiak foru parlamentarietzat ezarritako dietak ondoko baldintzen menpean egonen dira:

a) Ezin izanen da egun bakoitzeko bi dieta baino gehiago jaso, alde batera utzita zenbat parlamentu-ekitaldi edo ordezkari-ekitalditan parte hartu den.

b) Goizez eta arratsaldean egiten diren Nafarroako Parlamentuaren organoetako bilkurak bi parlamentu-ekitaldi gisa hartuko dira, betiere 5 ordu baino gehiago irauten badute guztira.

c) Bertaratzeagatik dietak zuzenean ordainduko dira haiek sortu dituen parlamentariaren kontuan.

9. artikulua. Gastuen ordainak.

1. Nafarroako Parlamentuak osorik ordaindu edo itzuliko ditu foru parlamentarien bidaia ofizialtan joan-etorriak nahiz ostatua direla-eta sortzen diren gastuak.

Foru parlamentarien bidaia ofizialak izanen dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutakoak edota, presa kasuetan, Legebiltzarreko Lehendakariak baimendutakoak.

2. Bidaia ofiziala Nafarroatik kanpora edo atzerriara egiten baldin bada, foru parlamentariak ordain finko bat jasoko dute, bere baitan hartuko dituen bazkariari eta afariari dagozkien mantenu-gastuak nahiz justifikatu ezinako gainerako gastu guztiak. Ordain horien zenbatekoa Mahaiak ezarriko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren. Zenbatekoa urtero gaurkotuko da, Kontsumorako Prezioen Indize nazionalaren igoeraren arabera. Halaber, ordain horiek kalkulatu eta sortzeko irizpideak ezarriko ditu.

3. Aipatu bidaietan nor bere ibilgailua erabiltzen baldin badu, kasuko kilometroen kontua aurkeztu beharko da Kontu-hartzaile eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuan. Orobat jaso ahalko da ordaina, autobideetako bidesari, aparkaleku eta taxi gastuak direla eta, gastu horiek agiri bidez aldeztu aurretik justifikatuz gero.

4. Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariak ordaina jasoko dute bilkuretara joateko egini-ko kilometroei dagokien zenbatekoa ordainduko zaie. Bizilekutzat hartuko da kasuko foru parlamentaria erroldatuta dagoen udalerrria.

5. 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitakoa ez da oztupo izanen bertaratutako egun natural bakoitzeko foru parlamentariak dieta bat jasotzeko, bertaratzearen araberako ordainsariak aukeratu badi- tuzte.

6. Ordain guztiak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arauen menpean egonen dira.

10. artikulua. Beste ordainsari batzuk.

Legebiltzarren zerbitzuko langileak hautatzeko lehiaketa, oposizio edo probak egiteko epaimahaietan parte hartzen duten foru parlamentariak bertaratzeagatik dietak jasoko dituzte, Mahaiak ezarritako baldintzetan, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren estatutua.

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak lanaldi osoko araubidean beteko du bere kargua, Mahaiaren 1990eko apirilaren 2ko eta 2004ko maiatzaren 10eko erabakietan eta Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Xedapen iragankor bakarra. Aurreko ordainsari berezia.

2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeen ondoriozko Legebiltzarra eratu arte 1995eko apirilaren 11ko Mahaiaren Erabakian ezarritako ordainsari berezia jaso duten foru parlamentariei, erabaki horixe eta, kasua bada, hari gero egin zaizkion aldaketak aplikatuko zaizkie, betiere kargurako berriz hautatu ez badira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratuko dira arau honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak; eta, berariaz, hurrengokak:

– Erregelamenduko 14. artikulua garatzeko arauak, Mahaiaren 1989ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi eta 1991ko abenduaren 16ko eta 1997 apirilaren 14ko erabakien bidez aldatutakoak.

– Foru parlamentarietako ordainsari berezietan buruzko arauak, 1995eko apirilaren 11ko Mahaiaren Erabakiaz onetsi eta 2003ko ekainaren 25eko, 2004ko urtarrilaren 26ko eta 2004ko maiatzaren 10eko erabakien bidez aldatutakoak, xedapen iragankorrean ezarritakoa oztopo izan gabe.

– Mahaiaren 2004ko azaroaren 22ko Erabakia, ordainei buruzkoa, foru parlamentariei dagokienean.

Azken xedapenetan lehena. Arau osagarria.

Arau honetan ezarrita ez dagoenerako, osagarri gisa aplikatuko da funtzionarioen eta goi karguen bateraezintasunei buruzko legedia eta administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko estatuko legedia, bai eta Gizarte Segurantzari eta eskubide pasiboetarako buruzko legedia ere.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Arau hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2007ko ekainaren 20an hartuko du indarra.

Foru parlamentarien ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorreko Mahaia, Batzorde Iraunkorrari entzun ondoren, 2007ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko araua ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15.2 artikuluan xedatuarekin bat, ERABAKI DUGU:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2007. urterako, 58.000 eurokoa izanen da.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2007rako, 51.000 eurokoa izanen da.

3. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2007. urterako, 43.500 eurokoa izanen da.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2007. urterako, 38.250 eurokoa izanen da.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	45,15 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,18 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,34 »